

4/2019 FORU ARAUA, martxoaren 20koa, irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzkoa (BAO Apirilaren 4koa)

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2019ko martxoaren 20ko Osoko Bilkuran onartu dutela 4/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzkoa, eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN ETA MEZENASGOAREN ZERGA-PIZGARRIEN ARAUBIDE FISKALARI BURUZKO MARTIAREN 20KO 4/2019 FORU ARAUA.

ATARIKOA

Erabat desberdinak dira gaur egungo errealitate sozial, ekonomiko eta juridikoa eta, beste erakunde batzuekin batera, hirugarren sektoreko protagonista nagusi diren irabazi-asmorik gabeko erakundeetarako eta haiekin zuzenean lotutako mezenasgo-jardueretako zerga-araubide berezia ezarri zen garaiaren errealitatea. Zehazki, araubide berezi hori, Bizkaiko Lurralde Historikoan lehenengoz, otsailaren 5eko 5/1995 Foru Arauren bidez arautu zen, zeina Fundazioen eta Herri-Onurako Elkarteen Zerga-Araubideari eta Zudu Orokorreko jardueretako Partaidetza Pribaturako Zerga-Pizgarriei buruzkoa den.

Sektorea etengabe eta nabarmen hazi da, bai gure lurraldean, bai Europar Batasun osoan. Ondorioz, haren garrantzi sozial eta ekonomikoa ere nabarmen igo da, eta Europan ongizateari egiten dion ekarpena inork ez du zalantzan jartzen. Gure Autonomia Erkidegoan Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea onartu da ere. Haren bidez, interes publikorako lan egiten duen ekimen pribatu horren zati baten ezaugarriak eta eraketa ezartzen dira.

Agintari publikoak eurak dira sektoreak azken bi hamarkadetan bizi izan duen bultzadaren sustatzaile nagusiak; izan ere, jabetuta daude, batetik, beren konpromisoak eta betebeharrak betetzeko, egungo gizartearen interes orokorreko helburu ugariei erantzuteko hainbat eratako zailtasunak daudela eta, bestetik, helburu horiek betetzeko sektore pribatuaren partaidetzak gastu publiko gutxiago sortzen duela. Hori jakinda, beren erantzunkidetasuna onartzen dute politika publikoak erabilita — fiskala, besteak beste — halako erakundeei tratamendu berezia emateko pizgarrien bidez.

Foru-arau hori onartu eta hamarkada bat igarota, gizartea are kontzientziatuago zegoen sektore publikoaren zeregina osatzeko beharrezkoa zela sektore pribatuak interes orokorreko jardueretan zuen partaidetza handitzea. Horrek irabazi-asmorik gabeko erakunde-forma berriak agertzea eta ugaltzea ekarri zuen, bai eta herritarrek erakunde horiei ordura arte emandako laguntza handitzea ere. Orduko errealitate ekonomiko eta sozial berriari erantzun egokiago bat eman nahian, hasierako zerga-araubide hori eguneratu egin zen, Irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko 2004ko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauaren bidez.

Arautze horrek bultzada handia eman zion halako erakundeen etorkizunari; izan ere, pizgarri fiskalen katalogoa eta tributu arloko tresna juridikoak birformulatu eta hobetu zituen, eta, haien bidez, sustatu zen norbanakoek zein enpresek agintari publikoekin batera jardutea gizartearen interes orokorrak betetzen. Gainera, foru-arau horrek indartu egin zuen halako helburuak lortzen irabazteko asmorik gabeko erakundeek egin izan duten ekarpen baliotsuaren aitortpena, haien zerga-araubide berezia hobetuz.

Indarraldian zehar, 1/2004 Foru Araua maiz aldatua izan da, batez ere haren arauketa egokitzeko — beharrezkoa izan denean — pertsona fisikoen errentaren gaineko zergak, sozietateen gaineko zergak eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergak epealdi horretan izan dituzten aldaketetara.

Hura ezarri zenetik hamalau urte igaro ondoren, zenbait faktorek hausnarketa berri bat eragin dute halako erakundeei dagokien fiskalitatearen konfigurazioari buruz. Hausnarketa horren ondorio da foru-arau hau.

Hasteko, irabazi-asmorik gabeko erakundeen EAEko esparru juridiko arautzailea bera ere berrikusi eta eguneratua izan da, 2004. urtetik- Gaur egun, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Lege berriak osatzen dute esparru juridiko hori. Arauketa substantiboak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei dagokien fiskalitateak elkarren artean duten mendetasunaren ondorioz, erakunde horien tributazioak izaera substantiboko zenbait betekizun fiskal bete behar ditu eta erakundeok dagokion erregistroan inskribatuta egon behar dute. Hori kontuan hartuta, argi dago komeni dela zerga-araubidea aplikatzeko betekizunak eguneratzea eta berrikustea.

Bestalde, egungo joera globalizatzaileak eta, harekin batera, ondoriozko liberalizazio ekonomikoa eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen jardunaren eskaera eta aitorpen soziala funtseko osagai dira erakundeon fiskalitatearen konfigurazio berria. Bistan da: gaur egun, irabazi-asmorik gabeko erakundeek ez dute mugatzen beren jarduna tokiko esparrura. Aitzitik, haien jarduerak eta finantzaketa-bilaketak ez dute lurralde-mugarik, eta zabaltze-izaera horretan ondo bereizitako alderdi bi daude. Batetik, mugaz haraindiko mezenasgoa deitu geniezaiokeena dago, hau da, ez dago mugarik enpresek edo herritarrek beren ekarpenen bidez irabazi-asmorik gabeko erakundeen interes orokorren lorpenean laguntzeko hartzen dituzten erabakietan. Bestetik, erakundeek eurek garatzen dituzten jardueretan ere ez dago lurralde-mugarik gaur egun. Beraz, erakundeok beren jarduketa-eremua zabaltzen ari dira, eta dauden lurraldeko mugak gainditu dituzte, haietatik kanpoko ekintzak egiteko; edo globalak izateko jaio dira, eta, beraz, mundu mailan dihardute.

Baina, nahiz eta erakunde hauen funtzionamendua globalizatu den eta Europar Batasunaren barruko lurralde-mugak desagertu diren, ez da gertatu prozesu paralelo bat EBko estatuek ekonomia-, zerga- eta merkataritza-arloetan ezarritako barrerak desagerrarazteko. Hala, bada, Europar Batasunaren errealitate sozial eta ekonomikoaren beste gai batzuetan bezala, errealitate hori bizkorrago ari bilakatzen hura arautzen duen legeria baino, zeinak oraindik ere mantentzen dituen merkatu librearen funtzionamendu egokirako eta haren funtsezko askatasunetarako oztopo diren legezko barrera batzuk.

Horregatik, Europar Batasunean kapitalen zirkulazio librean dauden oztopo batzuk — egungo zerga-araubide bereziak sortzen dituenak — kentzeko, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C-386/04 (Centro di Musicologia Walter Stauffe) eta C-318/07 (Persche) gaietan ezarritako jurisprudentzia-ildoari jarraituz, foru-arau honek zabaldu egiten die araubide fiskal hau irabazi-asmorik gabeko erakunde ez-egoiliarrei, eta, orobat, bidea irekitzen die Bizkaiko Lurralde Historikoaren araudi fiskala aplikatzen duten pertsona fisiko eta juridiko zergadunek egindako mezenasgoaren onuradun izateko (pizgarri fiskala duten mezenasgoa), baldin eta erakundeok betetzen badituzte irabazi-asmorik gabeko erakunde egoiliarrei eskatzen zaizkien betekizunak, eta zergadun horiek justifikatzen badute irabazi-asmorik gabeko erakunde ez-egoiliarrei egindako dohaintzak eta ekarpenak benetan egin direla.

Zerga-araubide hau Europar Batasunaren ordenamendu juridikora egokitzeko asmo horrekin batera, foru-arau honek beste helburu nagusi bat lortu nahi du: irabazi-asmorik gabeko erakundeen araubide fiskal bereziari beste bultzada bat eman nahi zaio. Orobat, erakundeon finantzaketan laguntzen duten pertsona fisiko zein juridikoen mezenasgoa bultzatu nahi da, aintzat hartzeko haiek guztiek gure gizartean betetzen duten funtseko eginkizuna, ordezkaezina dena.

Foru-arau honek 50 artikulua ditu, egitura honetan banatuak: lau titulu, hiru xedapen gehigarri, xedapen iragankor bi, xedapen indargabetzaile bat eta azken bi xedapen.

I. tituluan bi artikulua daude, foru-arauaren xedea eta aplikazio-eremua arautzen dituenak. II. tituluak, berriz, irabazi-asmorik gabeko erakundeei aplikatzen zaien zerga-araubide berezia ezarri eta garatzen da, eta III. tituluak mezenasgoari aplikatzen zaizkion pizgarri fiskalak arautzen ditu, haien forma eta konfigurazio guztietan. Azkenik, IV. tituluan ezartzen da nola aplikatzen zaien zerga-araubide berezia irabazi-asmorik ez duten eta interes orokorreko helburuak dituzten beste erakunde batzuei, zehazki, fundazioa edo herri-onurako elkarteak ez beste forma juridiko bat dutenei. Eta, amaitzeko, titulu berean zehazten da zer ondorio ekarriko dizkien mezenasgoaren onurak aplikatu dituzten zergadunei mezenasgoaren erakunde onuradunek araubide fiskalak ezartzen dizkien betekizunak ez betetzeak.

II. titulua hiru kapitulutan banatzen da. I. kapituluan («Arau orokorrak») xedatzen da irabazi-asmorik gabeko zer erakundek aplikatu dezaketen zerga-araubide berezia, eta, Europako Erkidegoaren Funtzionamenduari buruzko Itunak eskatzen duen kapitalak mugitzeko askatasunarekiko errespetatua betetzeko (lehen adierazi dena), beste hauek ere jotzen ditu halako erakundetzat: fundazioaren edo irabazi-asmorik gabeko elkartearen antzeko forma juridikoa duten erakundeak, Espainiako lurraldean egoitza izan gabe Espainiako establezimendu iraunkor baten bidez dihardutenak, edo Europar Batasuneko edo Europako Ekonomia Esparruko beste herrialde batean egoitza dutenak.

Halaber, 5. artikuluan, halako erakundeek araubide berezia aplikatu ahal izateko baldintzak birformulatzen dira, eta berriak sartu. Baldintza berrien artean, hauek azpimarratu behar dira: 5.7 artikulua xedatzen duenez, erakundeen kudeaketa desinteresatua izan behar da, artikulua bereko 6. zenbakian ezarritako baldintza sendotzeko, eta 11. eta 12. zenbakietan ezartzen diren baldintza berriak, kontabilitate-betebeharrei edo kontuak emateari buruzkoak. Hala, fiskalitateari gehitzen zaizkie halako erakundeei beren legeria substantiboak ezartzen dizkien eskakizunak.

II. tituluko II. kapituluan, erakunde horiek sozietateen gaineko zerga eta, hala denean, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ordainketan dituzten berezitasunak arautzen dira. Arauketa hori, oro har, orain arte indarrean egon denaren jarraipentzat hartu daiteke (alde batera utzita araubide hau zergadun ez-egoiliarrei aplika dakiekeela). Baina, neurri garrantzitsu batzuk sartu dira, bi alderdi hauen arteko beharrezko orekari erantzuten diotenak: batetik, halako erakundeen zerga-araubidearen hobekuntza (araubide horrek tributu-karga handienetik salbuesten ditu, forma juridikoagatik, irabazi-asmorik ez izategatik eta interes orokorreko helburuak betetzeagatik) eta, bestetik, tributu-administrazioak aurretiko kontrol-mekanismo bat ezarri beharra, araubideak berak ezartzen dizkien baldintzak betetzen dituzten zaintzeko, eta, azken finean, tratamendu fiskal hori erabil dezaketen erakundeen egokitasuna bermatzeko.

Erakunde horien tratamendu fiskalari dagokionez, nabarmendu behar da atalaseak igo direla. Atalase horien barruan, salbuetsitako ustiapen ekonomikoen laguntza-jarduera edo jarduera osagarri jakin batzuk ere salbuetsitzat joko dira, eta, ondorioz, erakundearen diru-sarreraren bolumen osoa 100eko 25etik 100eko 30era igaroko da. Halaber, garrantzi txikiko jardueren kasuan, diru-sarreraren bolumenaren muga 30.000 euro izan da orain arte; aurrerantzean, berriz, 50.000 izango da. Azpimarratu beharreko beste neurri batzuen artean, hauek aipatuko ditugu: salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoei aplikatu beharreko zerga-tasa puntu ba jaitsi da (100eko 9 izango da), koherentziaz jokatzeko gainerako erakundeei sozietateen gaineko zerga dela-eta aplikatzen zaien zerga-tasarekin, zeina 2018an onartutako aldaketa baten ondorioz gutxitu den; eta, aurrerantzean, salbuetsi gabeko jardueren ustiapen-soberakina deduzitzeko aukera egongo da, soberakin hori ez bada aplikatzen halako erakundeei interes orokorreko helburuak betetzearen ondorioz sortutako galerak konpentsatzeko.

Amaitzeko, II. kapituluak zerga-araubide berezia aplikatu aurreko kontrol-mekanismo bat ezartzen du, eta erakundeon berezko betebehar jakin batzuk (hala nola memoria ekonomiko bat egin eta aurkeztu beharra —5.12 artikulua— eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharra) ez betetzearen ziozko zehazpen espezifikokoak arautzen dira.

Araubidea aplikatzeko berritasunen artean, hura eskatu beharra ezartzen da; hala, tributu-administrazioak bermatu ahal izango du araudi fiskalak eskatutako baldintza guztiak betetzen dituzten erakundeek aplikatzen dutela. Eskaera egiteko prozedura eta onarpena erregelamenduz arautuko badira ere, foru-arauak ezartzen du zer dokumentazio aurkeztu behar

duten zergadunek araubide berezia aplikatzeko, eskabidearekin batera. Dokumentazioa hau da: eratze-eskritura edo -akta, erakundearen estatutuak, haren helburuen azalpen-memoria bat, dagokion erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzeko agiria, eta 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituelako erantzukizunpeko adierazpen bat, erakundearen legezko ordezkari guztiek sinatua.

Azkenik, II. tituluko III. kapituluan, tokiko zergekin lotutako salbuespenak jaso dira; aurreko araudiarekin konparatuta, ez dago berritasun handirik.

III. titulua mezenasgori emandako zerga-pizgarriei buruzkoa da, eta lau kapitulutan banatzen da. Titulu horretan dagoen mezenasgoari buruzko arauketak lehenengo pizgarri- sistemaren alderdi batzuk gordetzen ditu, baina aldaketa garrantzitsuak sartu ditu, sektore pribatuaren konpromisoa sustatzearen eta aintzatestearen ondorioz, bai eta aurreko erregimenaren aplikazioan Bizkaiko Tributu-administrazioak hartu duen esperientziaren ondorioz.

Aldaketa horietako lehenengoan zehazten da zer erakunde hartu behar diren mezenasgoaren onuraduntzat foru-arau honen ondorioetarako, eta kategoria hori Europar Batasunean edo Europako Ekonomia Esparruan egoitza dutenei ere ematen zaie, gure araudia EBren antolamendura egokitu beharri erantzuteko (lehen ere aipatu dugu). Mugaz haraindiko mezenasgo berri horrek berekin dakar betebeharrak formal bat, mezenasgoari onura fiskalak aplikatzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Betebeharrak hori Bizkaiko Lurralde Historikoaren tributu-araudiaren pean dauden eta erakunde horien aldeko dohaintzak eta ekarpenak egiten dituztenek bete beharko dute.

III. tituluko II. kapituluak dohaintza eta ekarpenen zerga-araubidea garatzen du. Kapitulu horretan izaera tekniko hutseko aldaketa batzuk sartzeaz gainera, aldaketa batzuk egin dira mezenasgoaren onuradun gisa kalifikatutako erakundeen alde dohaintzak eta ekarpenak egiten dituztenek aplikatu ditzaketen onura fiskalei buruzko araudian, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ondorioetarako.

Aldaketa horietarako arrazoi dira mezenasgorako pizgarri-sistema indartzea, pertsona fisiko zein juridikoek dituzten pizgarrien parekatzea eta pizgarri fiskalen aplikazioaren eta justifikazioaren sinplifikazioa.

Ildo horretan, batetik, 100eko 30eko kenkari bat ezarri da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuotan, eta, bestetik, dohaintzen eta ekarpenen zenbatekoen gastu kengarrien izaera kendu da zerga horretatik. Gainera, 100eko 35ean parekatu dira kenkariaren aplikazioa mugatzen duten ehunekoak, erreferentzia gisa zerga-oinarria edo kuota hartuta (zergaren arabera), eta aukera ematen da muga horren gaineko gaindikinak aprobetxatzeko ondorengo bost zergaldietako autolikidazioetan (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan). Aukera hori bazegoen, eta mantendu egingo da, pertsona juridikoen kasuan, hogeita hamar urteko epe batean.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek aplikatu ditzaketen onurei dagokienez, establezimendu iraunkor baten bidez dihardutenek aukera izango dute sozietateen gaineko zergaren zergadunentzat ezarritako kenkaria aplikatzeko.

II. kapituluaren amaieran, emari eta dohaintzak benetan egin direla justifikatzeko betebeharrak jasotzen dira, zeinak erakunde onuradunak bete behar dituen egoiliarra bada. Egoiliarra ez bada, betebeharrak horretaz gainera, justifikatu behar du onuradunak mezenasgoari onura fiskalak aplikatzeko baldintzak betetzen dituela. Bigarren kasu horretan, justifikazio-betebeharrak ekarpena egin eta onura fiskalak izan dituenak egingo ditu.

III. tituluko III. kapituluan, berriz, beste mezenasgo-mota batzuei aplikatu dakiekeen zerga-araubidea garatzen da. Araubide horren edukian ez dago garrantzi handiko aldaketarik, aurreko araudian xedatutakoarekin alderatuta.

Azkenik, III. tituluko azken kapitulua bi ataletan banatu da. Lehena lehentasuneko jardueratzat jotako jardueren mezenasgo-araubideari buruzkoa da. Arlo horretan, funtsean, bi berritasun

nabarmendu behar dira: segurtasun juridikoaren eta gardentasunaren printzipioak, eta zerga-pizgarrien konfigurazio berri bat. Konfigurazio horretan, araubide orokorra kontuan hartu da, baina onura fiskalaren hobekuntza handi bat dakar.

Ondorio horietarako, foru-arau honek eutsi egiten die jarduera mota horietarako onura fiskalei — aurreko foru-arauan arautu ziren onura horiek —, eta lehen urtero erregelamendu- mailako xedapen bidez arautzen zen arlo bat gehitzen du.

Lehenik, Bizkaiko Lurralde Historikoko lehentasunezko hamar jarduketa-eremuak zehazten dira, mezenasgoaren ondorioetarako; gero, haietako bakoitzaren barruan ezartzen da zer jarduera diren lehentasunezkoak modu iraunkorrean, eta zer baldintza bete behar dituzten kalifikazio hori eskatzen duten beste jarduera batzuek Eskaerak egiteko prozedura erregelamenduz ezarriko den prozeduraren bidez egingo da. Arauketa hori bigarren xedapen gehigarriak osatzen du; izan ere, xedapen horren bidez, aldi baterako lehentasunezkoztat jotzen diren jarduera batzuk jasotzen dira.

Mezenasgoari emandako onura fiskalak, lehentasuneko jarduerekin lotuta daudenak, mezenasgoaren araubide orokorrerako ezarritakoen antzera konfiguratzen dira, baina badute pizgarri-plus bat: pertsona emaile fisiko edo juridikoari dagokion zergaren kuotaren 100eko 45era gehitu da kenkaria.

IV. kapituluaren bigarren atalako artikulua bakarrik dakar, ohiz kanpoko interes publikoa duten gertaerei laguntza emateko programei buruzkoa. Haren edukia eta lehen indarrean egon dena nahiko antzekoak diren.

Azkenik, lehentasuneko jardueri eta ohiz kanpoko interes publikoa duten gertaerei laguntza emateko programei dagokienez, otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauaren 30. artikuluan jasotako elkarrekotasun-klausula urte hauetan aplikatzearen ondorioz lortu den esperientzia kontuan hartuta (foru-arau hori irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzkoa da), komeni da klausula hori indargabetzea, ez baitu bete ezarri zenean lortu nahi zen xedea. Ondorioz, foru-arauaren 42. artikuluan ezarritako onura fiskalak bakarrik aplikatuko dira Bizkaiko Lurralde Historikoak lehentasunezkoztat jotako jardueri dagokienez, eta betiere lurralde historikoaren araudiaren pean dauden pertsona fisikoak edo juridikoak badira. Dena dela, Foru Arau honek ondorioak sortzen dituen eguna baino lehenagoko etorkizuneko dohaintzetarako jada formalizatuta konpromisoen kasuan iranankor araubidea ezartzen da.

IV. titulu berriaren bidez, zerga-araubide bereziaren arloko araudia egiteko teknika hobetu nahi da. Izan ere, titulu horren edukia aurreko foru-arauan bazegoen araututa, baina sistematika desberdin batekin. Haren I. kapituluaren zenbait manu sartu dira, lehen xedapen gehigarri ugaritan bildurik zeudenak. Bestalde, II. kapituluaren arautzen da zer ondorio izango dituen foru-arau honen 5. artikuluko baldintzak ez betetzeak, mezenasgoari emandako onura fiskalak aplikatu dituztenentzat.

Amaitzeko, lehenengo xedapen iragankorrak zenbait informazio-betebehar ezartzen dizkie foru-arau hau indarrean jartzen denean otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauaren II. tituluko zerga-araubide berezia aplikatzen ari direnei (foru-arau hori irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzkoa da). Informazio-betebehar horiek bete beharko dituzte zerga-araubide berezia aplikatu ahal izateko.

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-erakundeen hautapenari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatua betetzeko, memoria ekonomikoaren gaineko txostena erantsi zaio foru-arau honi, bai eta genero-eraginaren ebaluazioaren gaineko txostena ere.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

I. TITULUA XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

1. artikulua. Xedea.

1. Foru arau honen xedea da irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubidea arautzea, haien funtzio soziala, jarduerak eta ezaugarriak kontuan hartuta.
2. Halaber, mezenasgorako emandako zerga-pizgarriak arautu nahi dira. Foru arau honen ondorioetarako, interes orokorreko jardueretako partaidetza pribatua da mezenasgoa.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 2. artikuluan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 2. artikuluan eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 1. artikuluan xedatutakoa dela bide, foru arau honetan xedatutakoa Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudiari lotuta dauden zergadunei aplikatuko zaie.
2. Foru arau honetan aurrez ikusten ez den guztian, aurreko zenbakia aipatutako foru-arauak aplikatuko dira.

3. artikulua. Mugapena.

Foru arau honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko banku-fundazioei, haien araubide berezia aplikatuko baitzaie.

II. TITULUA IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN ZERGA-ARAUBIDE BEREZIA

I. KAPITULUA ARAU OROKORRAK

4. artikulua. Irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

Foru arau honen ondorioetarako, irabazi-asmorik gabeko erakundetzat hartuko dira hauek, betiere hurrengo artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte:

- a) Herri-onurakotzat jotako fundazioak eta elkarteak, Espainiako lurraldean egoiliar direnak, baita horien federazioak eta elkarteak ere.
- b) Espainiako lurraldean egoiliar ez diren erakundeak, lurralde horretan establezimendu iraunkor baten bidez jarduten dutenean eta a) letran aipatutako erakundeetako baten antzeko forma juridikoa dutenean.

Kanpo geratuko dira paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde batean egoiliar diren erakundeak, salbuespen honekin: Europar Batasuneko estatu kide bat izatea, eta, gainera, egiaztatzea erakundeak arrazoi ekonomiko baliozkoak dituela eratzeko eta jarduteko.

- c) Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kide batean egoiliar diren erakundeak, Espainiak estatu horrekin zergei buruzko benetako informazio-trukea duenean Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren hogeita laugarren xedapen gehigarriaren 3. zenbakian ezarritakoaren arabera, baldin eta Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik gabe jarduten badute eta a) letran aipatutako erakundetako baten antzeko forma juridikoa badute.

Kanpo geratuko dira paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde batean egoiliar diren erakundeak, salbuespen honekin: egiaztatzea erakundeak arrazoi ekonomiko baliozkoak dituela eratzeko eta jarduteko.

5. artikulua. Irabazi-asmorik gabeko erakundeek bete beharreko baldintzak.

Aurreko artikuluan aipaturiko erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte irabazi-asmorik gabeko erakundetzat jotzeko:

1. Interes orokorreko xedeak izatea. Halako xedetzat jotzen dira hauek, besteak beste: giza eskubideen eta printzipio etiko eta demokratikoen defentsa, bereziki terrorismoaren eta indarkeriazko ekintzen biktimen defentsa; gizarte-ekintzaren sustapena; hezkuntza, kultura, kirola, osasuna eta lana; garapenerako lankidetzak eta hezkuntza; ingurumenaren eta ondarearen defentsa; gizarte-ekonomiaren eta/edo enpresa-ekintzailetzaren sustapena; lehen sektorearen, industriaren eta zerbitzuen garapena; informazio-gizartearen garapena; ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoa; aukera-berdintasunaren sustapena; gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapena; indarkeria matxistak ezabatzea eta batez ere indarkeria horien biktima diren emakumeak babestea; komunitate-garapena; euskal hizkuntza- eta kultura-aniztasuna; animalien defentsa eta babesa, eta boluntariorik gabeko erakundearen sustapena eta tolerantziaren defentsa.
2. Honako errenta eta diru-sarrera hauen 100eko 70, gutxienez, interes orokorreko xedeetarako erabiltzea:
 - a) Garatzen dituzten ustiapen ekonomikoen errentak.
 - b) Beren titulartasuneko ondasunak eta eskubideak eskualdatzearen ondoriozko errentak. Errenta horiek kalkulatzeko, honako hauek ez dira sartuko:
 1. Ondasun higiezinaren kostu bidezko eskualdatetan lortutakoak, erakundearen jardura edo helburu nagusia ondasun horietan garatzen denean, baldin eta eskualdatze horren zenbatekoa halako ondasunetan eta eskubideetan inbertitzen bada berriro.
 2. Tituluen, baloreen, eskubide ekonomikoen edo ondasun higigarrien kostu bidezko eskualdatetan lortutakoak, irabazi-asmorik gabeko erakundearen ondare-zuzkidura sartuta badaude edo sortze-helburuei edo estatutuetan jasotako helburuei zuzenean eta modu iraunkorrean lotu bazaizkie, betiere kontraprestazioa zuzkidura izaera edo lotura bera duten ondasun edo eskubideetan berrinbertitzen bada.
 - c) Beste edozein kontzepturen ondorioz lortutako diru-sarrerak, haiek lortzeko egindako gastuak kenduta.
 2. zenbaki honetan aurreikusitakoaren zenbaketarako, kontabilitate-emaizari begiratuko zaio, hau kontuan hartuta:
 - Diru-sarreraren kalkuluan ez dira sartuko erakundea eratu zenean edo geroago ondare-zuzkidura gisa jasotako ekarpenak edo dohaintzak.
 - Gastuen kalkuluan, kendu egingo dira irabazi-asmorik gabeko erakundearen estatutuen helburuak edo xedea betetzeko egindakoak, eta, haien artean, amortizaziorako zenbatekoak eta helburu horiei atxikitako ibilgetuaren osagaien narriaduraren ondoriozko galerak zenbatuko dira. Orobat, estatutu- edo fundazio-helburuak betetzeko garatutako jardura guztien gastu komun zati proportzionala kenduko da.

Gastu komun artean, hauek sartuko dira: kanpoko zerbitzuen ziozko gastuak, langile-gastuak, finantza-gastuak, tributu-gastuak eta administrazio- eta kudeaketa-gastuak. Administrazio- eta kudeaketa-gastutzat joko dira fundazioaren ondarea osatzen duten

ondasunen eta eskubideen administrazioak zuzenean eragindakoak. Halaber, patronatuko kideei ordaina jasotzeko eskubidea ematen dizkietenak joko dira halako gastutzat, indarrean dagoen legeriarekin bat etorrita eta erregelamenduz kasu bietarako ezarriko diren mugekin.

Baldintza hori betetzeko epeari dagokionez, errenta eta diru-sarrerak lortu diren ekitaldiaren hasieraren eta ekitaldi hori itxi ondorengo lau urteen artekoa izango da.

3. Gainerako errentak eta diru-sarrerak ondare-zuzkidura edo erreserbak handitzeko erabiltzea, administrazio- eta kudeaketa-gastuak (erregelamenduz ezarriko diren mugekin) kendu ondoren. Baldintza hau betetzeko epea 2. zenbakiko azken paragrafoan ezarritakoa izango da.
4. Egindako jarduera ez izatea estatutuetan jasotako xedeari edo helburuari lotu gabeko ustiapen ekonomikoak garatzea. Baldintza hori bete dela ulertuko da ekitaldiko diru-sarreraren bolumenak (estatutuetako xedeari edo helburuari lotuta ez dauden ustiapen ekonomikoen multzoari dagokionez) erakundearen diru-sarrera guztien bolumenaren 100eko 40 gainditzen ez badu.

Foru Arau honen ondorioetarako erakundearen ondare higiezinaren errentamendua ez da ustiapen ekonomikotzat joko.

5. Sortzaileak, elkartekideak, patronatuko kideak, estatutu-ordezkariek, gobernu- organoetako kideak eta ezkontideak, izatezko bikotekideak edo laugarren gradurainoko ahaideak (gradu hori barne) ez izatea erakundeek egiten dituzten jardueren jasotzaile nagusiak eta ez edukitzea baldintza berezirik erakundearen zerbitzuak erabiltzeko.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa ez da aplikatuko ikerketa zientifikoari eta garapen teknologikoari loturiko jardueretan, ezta laguntza sozial edo kiroleko jardueretan ere (Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 20. artikulua 1. apartatuaren 8. eta 13. zenbakietan aipatuak), eta Euskal Herriko Kultur Ondarearen edo Espainiako Ondare Historikoaren barruko ondasunak kontserbatzeko eta berritzeko helburua duten funtzioei ere ez zaie aplikatuko, nahiz eta Euskal Herriko Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeko eta Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeko edo kasuan kasuko autonomia erkidegoko legeko baldintzak bete.

6. Patronatuko kidearen, estatutu-ordezkariaren eta gobernu-organoko kidearen karguak doakoak izatea, dagokien funtzioa betetzearen ondorioz izandako gastu justifikatuak itzultzeko eskubidearen kalterik gabe. Hala ere, kontzeptu hori dela-eta jasotako zenbatekoek ezin izango dituzte gainditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian jasotako mugak (zergapetzetik salbuetsitako saritzat hartzeko ezarritakoak).

Erakundeak ordainak eman ahal izango dizkie patronatuko kideei, estatutu-ordezkariei eta gobernu-organoko kideei zerbitzuak emateagatik (lan-harremanaren eremuan emandako zerbitzuak barne), baina zerbitzuok ez dute zerikusirik izango Patronatuko edo ordezkaritza-organoko kide gisa dituzten funtzioak betetzeko eman beharreko zerbitzuekin, eta, gainera, erakundea arautzen duten arauetan ezarritako baldintzak bete beharko dira ordaina jaso ahal izateko. Pertsona horiek ezin izango dute parterik hartu erakundearen emaitza ekonomikoetan, ez zuzenean ezta bitarteko pertsona edo erakunde baten bidez ere.

Zenbaki honetan ezarritakoa erakundea beste merkataritza-sozietate batzuetan ordezkatzen duten administratzaileei ere aplikatuko zaie, baldin eta administratzaile izatearen ondorioz jasotako ordainketak ordezkatzen duten erakundeari itzultzen ez badizkiote.

Kasu horretan, administratzaileak jasotako ordainketa salbuetsita egongo da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, eta ez da zerga horren konturako atxikipenik egin beharko.

7. Kudeaketa desinteresatua izatea. Kudeaketaren izaera desinteresatua —6. Zenbakiko bigarren paragrafoan xedatutakoa gorabehera— egiaztatutzat joko da baldintzak hauek aldi berean betetzen direnean:

a) Erakundearen kudeaketa eta administrazioa emaitzetan zuzeneko edo zeharkako interesik ez duten pertsonen esku egotea, zuzenean edo bitarteko pertsona baten bidez.

Dena den, baldintza hori ez da ez-betetaketaz joko erakundeak bere dimentsioaren ondorioz enplegatutak dituenen, ez eta enplegatu horiekiko lan-harremanak bereziak direnean ere (goi-mailako zuzendariak, erakundearen jardura ikuskatzeko eta jardura-eremuetan erabakiak hartzeko gaitasuna dutenak).

b) Erakundeak ez egitea etekinen banaketarik.

c) Artikulu honen 5. zenbakiko lehen paragrafoan aipatutako pertsonak eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42.3 artikuluan ezarritakoaren arabera haiekin lotura duen beste edozein pertsonak edo erakundek parte ez hartzea, euren zuzenean edo bitartekari bidez, entitatearen interes edo ondare-osagaiak ukitzen dituzten negozio juridikoetan.

8. Erakundea deseginez gero, foru arau honen 19. artikuluan aipatutako mezenasgoaren erakunde onuraduntzat hartutako erakundeetako bati ematea ondare osoa edo, bestela, interes orokorreko xedeak dituzten eta fundazio izaera ez duten erakunde publikoei ematea. Era berean, inguruabar hori berariaz egon behar da jasota desegindako erakundearen fundazio-negozioan edo estatutuetan.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, irabazi-asmorik gabeko erakundeek aurrezki-kutxen edo banku-fundazioen gizarte-ekintzarako erabili ahal izango dute desegitearen ondoriozko ondarea, betiere aukera hori berariaz jasota badago desegindako erakundearen fundazio-negozioan edo estatutuetan.

9. Iraungitze-kasuetan, erakundearen araubide juridikoak ez ahalbidetzea ondarea bueltatzea haren emaileari, jaraunseari edo legatu-hartzaileari, non eta itzulketa ez dagoen aurreikusita foru-arau honen 19. artikuluan aipatutako mezenasgoaren erakunde onuradunen baten alde.

10. Dagokien erregistroan inskribatuta egotea.

11. Dagozkien arauetan ezarritako kontabilitateko betebeharrak betetzea, edo, bestela, Merkataritzako Kodean eta xedapen osagarrietan ezarritakoak.

12. Beren legeria berezian ezarritako kontuak emateko betebeharrak betetzea. Lege-aurreikuspen berezirik ez badago, ekitaldia ixten denetik sei hilabete igaro baino lehen eman beharko dizkiote kontuak dagokion erregistroaren ardura duen organismo publikoari.

13. Urtero memoria ekonomikoa egitea, hauek adierazita: ekitaldiko diru-sarrerak eta gastuak, kategorien eta proiektuen arabera identifikatu ahal izateko moduan, eta merkataritza-erakundeetan duten partaidetzaren ehunekoak, edo, halakorik ezean, informazio hori sartzea aplikatu beharreko kontabilitate-araudia dela-bide aurkeztu behar duten memorian.

Erregelamenduz garatuko da sozietateen gaineko zergaren autolikidazioarekin batera derrigor aurkeztu behar den memoria ekonomikoen edukia, bai eta irabazi-asmorik gabeko erakundea txikia izategatik betekizun hori eskatzen ez den kasuak ere.

6. artikulua. Zerga-egoitza.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-egoitza beren egoitza soziala izango da, betiere bertan zentralizatuta badituzte erakundearen administrazio-kudeaketa eta erakundearen

zuzendaritza. Bestela, zerga-egoitza kudeaketa edo zuzendaritza hori egiten den lekua izango da.

Aurreko irizpideak jarraituz ezinezkoa bada zehaztea zerga-egoitza non dagoen, ulertuko da erakundeek zerga-egoitza Bizkaian dutela, baldin eta, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan edukita, Bizkaiko Lurralde Historikoan duten ibilgetuaren balioa handiagoa bada beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan duten ibilgetuaren balio ibilgetuarena baino.

II. KAPITULUA

SOZIETATEEN GAINKO ZERGA ETA EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINKO ZERGA

7. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.

Foru-arau honen 4. artikuluan b) letran aipatzen diren erakundeen kasuan, kapitulu honetan xedatutakoa aplikatuko da, eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko aipamenak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagozkiola ulertuko da. buruzko arauak aplikatuko dira.

Foru-arau honen 4. artikuluan c) letran aipatzen diren erakundeen kasuan, irabazteko asmorik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga-araubideari buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen II. Tituluko II. kapitulan xedatutakoa aplikatuko da. Ulertzen da Sozietateen gaineko Zergari buruzko aipamenak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagozkiola.

8. artikulua. Errenta salbuetsiak.

Foru arau honen 5. artikuluan aipatutako baldintzak betetzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeek lortutako errentak salbuetsita egongo dira Sozietateen gaineko Zergan kasu hauetan:

1. Ondoko diru-sarreretatik datozenak:
 - a) Erakundearen xedeetan laguntzeko, erakundea eratzean edo geroago jasotako dohaintzak, ondare-zuzkidura gisa jasotako ekarpenak edo dohaintzak barne, baita foru arau honen 28. artikuluan araututako enpresa-lankidetzako hitzarmenak direla bide eta Publizitateari buruzko 1998ko azaroaren 11ko 34/1998 Lege Orokorrean aipaturiko publizitateko babes-kontratuak direla bide jasotako laguntza ekonomikoak ere.
 - b) Elkartekideek, laguntzaileek edo ongileek ordaindutako kuotak, baldin eta horiek salbuetsi gabeko ustiapen ekonomiko baten ondoriozko prestazioa jasotzeko eskubideari ez badagozkiola.
 - c) Diru-laguntzak, salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoak finantzatzeko ematen direnak izan ezik.
2. Erakundearen ondare higigarritik eta higiezinetik datozenak, besteak beste, sozietateen mozkinetako dibidenduak eta partaidetzak, interesak, kanonak eta alokairuak.
3. Ondasunak edo eskubideak edozein tituluren bidez eskuratzearen edo eskualdatzearen ondoriozkoak, erakundea desegitearen eta likidatzearen ondorioz lortutakoak barne.
4. Hurrengo artikuluan aipaturiko ustiapen ekonomiko salbuetsietan lortutakoak.
5. Zerga-araudiaren arabera irabazi-asmorik gabeko erakundeei eratxiki edo egotzi behar zaizkienak, baldin eta artikulua honen aurreko zenbakietako batean aipatu diren errenta salbuetsien ondoriozkoak badira.

9. artikulua. Ustiapen ekonomiko salbuetsiak.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeek lortutako errentak Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita daude ustiapen ekonomiko hauetatik datozenean:

1. Erakundearen helburua edo xedea betetzeko garatzen direnak.
2. Irabazi-asmorik gabeko erakundearen ustiapen ekonomiko salbuetsien edo estatutuetoako helburuak nahiz xedea betetzeko jarduera ekonomikoen lagungarriak edo osagarriak direnak. Ustiapen ekonomikoak ez dira lagungarri edo osagarritzat joko ustiapen guztien multzoari dagokion ekitaldiko diru-sarreraren bolumenak erakundearen diru-sarrera guztien bolumenaren 100eko 30 gainditzen duenean.
3. Garrantziak. Garrantzi txikikotzat jotzen dira ekitaldiko diru-sarreraren bolumenean 50.000 eurora iristen ez direnak.

10. artikulua. Zerga-oinarria zehaztea.

1. Irabazi-asmorik gabeko erakundearen zerga-oinarria zehazteko, salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoen ondoriozko errentak baino ez dira sartuko.
2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko araudi orokorrean ezarritakoak ez ezik, honako hauek ere ez dira gastu kengarritzat hartuko:
 - a) Errenta salbuetsiei soilik egozteko moduko gastuak. Salbuetsi gabeko errentei zati batean egoztekoak diren jarduera guztien gastu komunak kengarriak izango dira, hain zuzen ere, salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoetatik ekitaldian lortutako diru-sarreraren bolumenak erakundearen diru-sarrera guztien bolumenaren gainean ordezkatzeko duen ehunekoan.
 - b) Kargapean dauden ustiapen ekonomikoetara lotu gabeko ondare-elementuen amortizaziorako edo narriaduraren ondoriozko galeretarako erabilitako zenbatekoak. Jarduera salbuetsiak egiteari neurri batean lotuta dauden ondare-elementuen kasuan, ez dira kengarriak izango, ondare-elementua kasuan kasuko jarduera egiteari lotuta dagoen ehunekoan.
 - c) Salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoen emaitzen eta, bereziki, soberakinaren aplikazioa osatzen duten zenbatekoak, jarduera salbuetsiak egiteko erabiltzen direnak. Foru-arau honen 5.1. artikuluan aipatutako helburuak betetzearen ondorioz erakundeak kontabilitate-emaitza negatiboa duenean, kengarria izango da ekitaldian aplikatu den ustiapenaren soberakinaren zenbatekoa, eta emaitza negatibo hori izango da muga.

11. artikulua. Balorazio-arauak.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 101.1.c) artikuluan ezarritako araubidea foru-arau honen 5.8 artikuluan aipatutako kasuan aplikatu ahal izango da, betiere Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluaren ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira.

12. artikulua. Karga-tasa.

Salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoetatik datozen errentei dagokien zerga-oinarri positiboari 100eko 9ko karga-tasan aplikatuko zaio.

13. artikulua. Kontabilitateko betebeharrak.

Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoen errentak lortzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeek zerga hori arautzen duten arauetan ezarritako kontabilitateko betebeharrak izango dituzte. Erakunde horien kontabilitatea salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoetarako dagozkien diru-sarrerak eta gastuak identifikatzeko moduan eramango da.

14. artikulua. Atxikipenari lotu gabeko errentak.

Foru arau hau dela bide salbuetsita dauden errentei ez zaie aplikatuko atxikipenik ez konturako sarrerarik. Erregelamendu bidez zehaztuko da irabazi-asmorik gabeko erakundeek zer egiaztapen-prozedura bete behar duten atxikipena egiteko betebeharetik salbuetsita geratzeko.

15. artikulua. Aitortu beharra.

Titulu honetan ezarritako zerga-araubidea aukeratzen duten erakundeek errenta guztiak (salbuetsiak eta salbuetsi gabeak) aitortu beharko dituzte Sozietateen gaineko Zergan.

16. artikulua. Zerga-araubide berezia aplikatzea.

1. Titulu honetan araututako zerga-araubide berezia aplikatu nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek Tributu-administrazioari egin beharko diote eskaera, erregelamendu bidez ezartzen diren epean eta forman. Araubide hori aplikatzeko eskaerarekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte: eratze-eskritura edo –akta (kopiak), erakundearen estatutuak, xedeak azaltzen dituen memoria, dagokien erregistroan inskribatuta daudela dioen ziurtagiria eta erakundearen legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat, foru-arau honen 5. artikuluan ezarritako betekizunen betetzeari buruzkoa.

«Mortis causa» egintzen bidez eratutako fundazioen kasuan, eratze-eskrituraren ordezkari, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 2016ko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 8.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita eskritura horren baldintza berberak betetzen dituen agiria aurkeztu ahal izango da.

Tributu-administrazioak sortze-klausulen eta estatutuetakoa klausulen edukia zehatz ezagutzeko beharrezko argibideak eta datu osagarriak eskatu ahal izango dizkie interesdunei.

2. Eskaera ebazteko, Tributu-administrazioak kontuan hartuko du, batetik, erakunde eskatzaileak eskatutako baldintza formalak betetzen dituela, eta, bestetik, bereziki, erakundearen funtsezko alderdia, foru arau honen 5. artikuluan 1. zenbakian aipatzen diren interes orokorreko helburuak betetzeko izan dezaken balioagatik. Bereziki haztatuko dira hauek: erakundearen xedea eta helburuak, dituen baliabideak, eta antzeko beste erakunde batzuekin edo Administrazio Publikoarekin koordinatuta jarduteko aukera.

Tributu-administrazioak titulu honetan ezarritako zerga-araubidearen aplikazioa onartuko die foru-arau honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten irabazteko asmorik gabeko erakundeei.

3. Zerga-araubide berezia aplikatu ahal izateko, araubide horri dagozkion betekizunak eta egitatezko baldintzak bete beharko dira, eta erakundearen ardura izango da betetzen dituela frogatzea. Araubidea eskaera egin den zergalditik aurrera aplikatuko da, organo eskudunaren titulu honetan ezarritako zerga-araubidearen aldeko erabakia ezagutzera eman ondoren.

17. artikulua. Zehapen-araubidea.

1. Artikulu honetako hurrengo zenbakietan ezarritakoaren kalterik gabe, arau-haustek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan eta hura garatu duten arau-xedapenetan ezarritakoaren arabera zehatuko dira.
2. Sozietateen gaineko zergaren autolikidazioarekin batera memoria ekonomikoa egin edo aurkezteko betebeharra ez betetzea (foru-arau honen 5.13 artikuluan aipatzen da memoria hori) tributu-arloko arau-haustetzat joko da, eta horrek berekin ekarriko du erakundeak

dagokion zergaldian izan duen sarrera-bolumenaren %1eko isun finko bat, gutxienez, 1.000 eurokoa.

Orobat, tributu-arloko arau-haustetzat joko da memoria hori epez kanpo aurkeztea, Kasu horretan, erakundeak dagokion zergaldian izan duen sarrera-bolumenaren %0,5eko isun finko bat ordaindu beharko du; isuna, gutxienez, 500 eurokoa izango da.

Erakundeak arau-hauste bera egiten badu hurrengo lau zergaldietako batean, zehazpen bat jarriko zaio, hain zuen, ezin izango du eskatu titulu honetan xedatutako araubide berezia aplikatzeko hurrengo lau urteetan, paragrafo honetan aipatzen den zehapena administrazio-bidea irmo den momentutik aurrera.

3. Foru-arau honen 16.1 artikuluan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenean aitortutakoa ez betetzea ere tributu-arloko arau-haustetzat joko da, eta, ondorioz, zehazpen bat ezarriko da, hain zuen, erakundeak ezin izango du eskatu titulu honetako araubide berezia aplikatzeko hurrengo lau urteetan, zenbaki honetan aipatzen den zehapena administrazio-bidea irmo den momentutik aurrera.
4. Artikulu honetako 2. zenbakian ezartzen dena betez jartzen diren zehapenei Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 193. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie.

III. KAPITULUA TOKIKO TRIBUTUAK

18. artikulua. Tokiko tributuak.

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira zerga horri buruzko araudian ezarritakoaren arabera irabazi-asmorik gabeko erakundeen titulartasunekoak diren ondasunak, Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoei lotuta daudenak izan ezik.
2. Irabazi-asmorik gabeko erakundeak Ekonomia-jardueren gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira foru arau honen 9.artikuluan aipaturiko ustiapen ekonomikoei dagokienez. Hala eta guztiz ere, erakunde horiek zerga horren matrikulan alta eman izanaren aitortpena aurkeztu beharko dute, baita, jarduerari utziz gero, baja eman izanaren aitortpena ere.
3. Hiri-lurren Balioa-gehikuntzaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira kasuan kasuko gehikuntzak, zerga hori ordaintzeko legezko betebeharra irabazi-asmorik gabeko erakunde bati dagokionean.

Lursailak eskualdatzen direnean edo lursailen gaineko jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealak eratu eta eskualdatzen direnean, irabazi-asmorik gabeko erakunde batek kostu bidez egiten badu, zerga horretatik salbuesteko beharrezkoa izango da lursail horiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren salbuespena aplikatzeko baldintzak betetzea, zerga sortzen den unean eta kontuan hartu gabe zer helburu betetzeko adskribatzen dituen eskuratzailak.

4. Artikulu honetan ezarritako salbuespenak aplikatzeko, ezinbestekoa izango da irabazi-asmorik gabeko erakundeek foru-arau honen 16.2 artikuluan aipatutako araubidea aplikatzeari buruzko ebazpenaren berri ematea kasuan kasuko tributu-administrazioari, eta titulu honetan araturiko zerga-araubide bereziari dagozkion baldintzak eta egoerak betetzea.
5. Artikulu honetan ezarritakoak ez die eragingo toki-ogasunei buruzko foru araudian eta udal-zerga bakoitzari buruzko foru arauetan ezarritako salbuespenei.
6. Bidezko zerga-administrazioak egiaztatzeko dituen ahalmenei kalterik egin gabe, artikulu honetan ezarritako salbuespenak aplikatuko zaizkie, halaber, foru arau honen 4. eta 5. artikuluetan ezarritako baldintzak bete eta honako hauek aplikatzen dituzten entitateei:

fundazioen eta babesletza jardueren zerga-araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea; 3/2004 Foru Araua, apirilaren 7koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga-pizgarriari buruzkoa; 16/2004 Foru Araua, uztailaren 12koa, Arabako Lurralde Historikoko irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga-pizgarriari buruzkoa; 49/2002 Legea, abenduaren 23koa, irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga-pizgarriari buruzkoa; edo lehen aipatutakoak ordeztzen dituztenak, baita foru arau honen 19. artikulua 2. apartatuaren a) eta b) letretan aipatzen diren entitateak ere.

III. TITULUA

MEZENASGOARI EMANDAKO ZERGA-PIZGARRIAK

I. KAPITULUA

ERAKUNDE ONURADUNAK

19. artikulua. Mezenasgoaren erakunde onuradunak.

1. Titulu honetako II. eta III. kapituluetan ezarritako zerga-pizgarriak erakunde hauen alde egiten diren emariei, dohaintzei, ekarpenei eta zerbitzuen doako prestazioei aplikatuko zaizkie, titulu honetan ezarritako baldintzak betetzen direnean:
 - a) Foru arau honen II. tituluaren ezarritako zerga-araubidea aplikatu behar zaien irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta, foru arau honen 4. eta 5. artikuluetan ezarritako baldintzak beteta, arau hauek aplikatu behar zaizkienak: 10/1996 Foru Legea, uztailaren 2koa, Fundazioen eta babes ihardueren tributu araubidea erregulatzen duena; 3/2004 Foru Araua, apirilaren 7koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriari buruzkoa; 16/2004 Foru Araua, uztailaren 12koa, Arabako Lurralde Historikoko irabazteko xederik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzkoa, eta 49/2002 Legea, abenduaren 23koa, irabazteko asmorik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzkoa, edo arau horiek ordeztzen dituztenak.
 - b) Bizkaiko Foru Aldundia, gainerako foru aldundiak, Estatua, autonomia-erkidegoak, toki-erakundeak eta administrazio horien guztien barruan dauden antzeko organismo autonomoak eta erakunde autonomoak.
 - c) Unibertsitateak eta haiei atxikitako zentroak.
 - d) Cervantes Institutua, Institut Ramon Llull eta hizkuntza ofizial propioa duten autonomia-erkidegoetan institutu horien antzeko helburuak dituzten gainerako erakundeak.
 - e) Euskaltzaindia, Espainiako Institutua eta horren barruko errege akademiak, baita hizkuntza ofizial propioa duten autonomia-erkidegoetan Euskaltzaindiaren antzeko helburuak dituzten erakundeak ere.
 - f) Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteareal Sociedad Bascongada de Amigos del País eta Labayru Institutua.
 - g) Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera, Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen 2014ko apirilaren 1eko 4/2014 Oinarrizko Legeko 19.1.c) artikuluan aipatzen diren ekarpenei dagokienez.
 - h) Espainiako Batzorde Olinpikoa eta Espainiako Batzorde Paralinpikoa.
 - i) Espainiako Gurutze Gorria eta Espainiako Itsuen Erakunde.
 - j) Euskal administrazio publikoen mendeko ikerketa-erakunde publikoak.

2. Titulu honetan ezarritako zerga-pizgarriak erakunde hauen alde egiten diren emariei, dohaintzei, ekarpenei eta zerbitzuen doako prestazioei aplikatuko zaizkie, titulu honetan eta, bereziki, 27. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direnean:
 - a) Foru arau honen 4. artikuluan c) letran aipatzen diren erakundeak, haren 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenean.
 - b) Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batzuetan irabazteko asmorik gabe gizarte- edo laguntza-lanetan ari diren erakundeak, baldin eta aurreko b) eta i) letretan azaldu diren erakundeen antzeko helburuak badituzte.

II. KAPITULUA

DOHAINTZEN ETA EKARPENEN ZERGA-ARAUBIDEA

20. artikulua. Emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazio kengarriak.

1. Titulu honetan jasotako kenkariak egiteko eskubidea emango dute ondoren aipatzen diren emari, dohaintza eta ekarpen ezeztazekin, puru eta soilek, aldi baterako doako lagapenek eta doako zerbitzu-prestazioek, betiere aurreko artikuluan aipatutako erakundeen alde egiten badira:
 - a) Diruzko emari eta dohaintzak, ondasunenak edo eskubideenak.
 - b) Elkarrekin afiliazio-kuotak, ez orain ez gero prestaziorik jasotzeko eskubiderik ez badagokie.
 - c) Ondasun, eskubide eta baloreen gaineko gozamen-eskubide erreal baten eraketa, ordainik hartu gabe egiten bada.
 - d) Euskal Kultura Ondarearen Erregistroan babes bereziko eta babes ertaineko ondasun gisa inskribatuta dauden ondasunen dohaintzak, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak aipatzen dituenak hain zuzen ere, baita Espainiako Ondare Historikoaren parte diren ondasunen dohaintzak ere, baldin eta kultura-intereseko ondasunen erregistro orokorrean inskribatuta badaude edo ekainaren 25eko 16/1985 Lege Organikoak aipatzen dituen kultura-ondasun edo dohaintza autonomikoen inbentario orokorrean sartuta badaude.
 - e) Besteak beste, museoei lotutako jarduerak egiteko eta ondare historiko eta artistikoa sustatzeko nahiz hedatzeko jarduerak egiten dituzten erakundeen alde egindako kultur ondasunen emariak edo dohaintzak, ondasunok kalitate berrmatua dutenean Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren arabera. Aldi baterako doako lagapenak 25 urterako izango dira, gehienez.
 - f) Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek egindako doako zerbitzu-prestazioak, zergadun horiek egoitza iraunkorraren bitartez dihardutenean, beti ere foru arau honen 23. eta 24.2 artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako soilik.
 - g) Ondasun higigarri edo higiezin baten erabilera aldi jakin baterako lagatzea, kontraprestaziorik gabe.
2. Dohaintza Kode Zibilean jasotako kasuren baten ondorioz ezeztatzen denean, dohaintza-emaileak aplikaturiko kenkariari dagozkien kuotak ordainduko ditu ezeztapena gertatzen den zergaldian. Horrez gainera, berandutza-interesak ere ordaindu beharko ditu. Aurreko paragrafoan ezarritakoa bazkidea nahita banantzen den kasuetan aplikatuko da bazkide horrek ondare-partaidetza bat jasotzen duenean elkarterako kidea izateagatik ordaindu beharreko kuota arruntak ez diren beste ekarpen batzuk direla eta.

3. Artikulu honetan aipatutako emari, dohaintza, ekarpen edo zerbitzuen doako prestazioek ez dute beren izaera galduko egiten dituzten pertsonen aldeko konpentsazio sinbolikoa edo erreputazio-kompentsazio bat gertatzen den kasuetan, betiere haien xede nagusia publizitatea edo propaganda ez bada.

Erregelamenduz, konpentsazioaren izaera sinbolikoari buruzko irizpide objektiboa batzuk ezarri ahal izango dira, bai eta emari, dohaintza, ekarpen edo zerbitzuen doako prestazioa egiten duen pertsonaren jardueraren xede nagusia zein den zehazteko beste batzuk ere.

21. artikulua. Emarien, dohaintzen, ekarpenen eta zerbitzuen doako prestazioen ondoriozko kenkariaren oinarria.

1. Aurreko 19. artikuluan aipatutako erakundeen alde egindako emarien, dohaintzen, ekarpenen eta doako zerbitzu-prestazioen ondoriozko kenkariaren oinarria hau izango da:

- a) Diruzko emari eta dohaintzetan, haien zenbatekoa.
- b) Ondasunen edo eskubideen emari edo dohaintzetan, haiek eskualdatzeko unean zuten kontabilitateko balioa eta, bestela, Ondarearen gaineko Zergari buruzko arauen arabera zehaztutako balioa.
- c) Ondasun higiezinaren gaineko gozamen-eskubide erreal baten eraketan, gozamena indarrean dagoen zergaldi bakoitzean higiezinaren balioari (Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan balio hori kalkulatzeko ezarritako erregelen arabera kalkulatuta) zerga-oinarriaren 100eko 4a aplikatzearen ondoriozko urteroko zenbatekoa. Zergaldi bakoitzari dagokion egun kopurua proportzionalki zehaztuko da.
- d) Baloreen gaineko gozamen-eskubide erreal baten eraketan, gozamena indarrean dagoen zergaldi bakoitzean gozamendunak jasotako dibidenduen edo interesen urteroko zenbatekoa.
- e) Beste ondasun eta eskubide batzuen gaineko gozamen-eskubide erreal baten eraketan, diruak ekitaldi bakoitzean duen legezko interesa gozamenaren balioari (Ondare Eskualdaketen eta Dokumentaturiko Egintza Juridikoen gaineko Zergari buruzko arauen arabera, zehaztuta eratu zen unean) aplikatzearen ondoriozko urteroko zenbatekoa.
- f) Euskal Kultur Ondarearen barruko ondasunen emarrietan edo dohaintzetan, Eusko Jaurlaritzak egindako balorazioa; Espainiako Ondare Historikoaren barruko ondasunen emarrietan edo dohaintzetan, Kalifikazio, Balorazio eta Esportazio Batzordeak egindako balorazioa, eta autonomia-erkidegoetako Ondare Historikoaren barruko ondasunen emarrietan eta dohaintzetan, organo eskudunek egindako balorazioa.

Aurreko paragrafoan aipaturiko organoen baloraziorik ez dagoenean, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailak egingo du.

- g) Kalitate bermatua duten lanen emarrietan edo dohaintzetan, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailak egindako balorazioa. Horrez gainera, aldi baterako doan lagatzen diren ondasunen balorazioa zehaztuko du; kasu honetan, kenkariaren oinarria zehazteko, ehuneko 2ko portzentajea aplikatuko zaio urte osoko zergaldi bakoitzeko.
- h) Doako zerbitzu-prestazioetan, prestazioaren kostua emailearentzat, lagatako ondasunen amortizazioa sartuta, halakorik badago.
- i) Foru-arau honen 20. artikulua 1. apartatuko g) letran aipatzen den ondasun higigarri edo higiezin baten erabileraren lagapenean, lagatzaileak lagapen-aldian ondasun horiekin lotuta jasandako gastuen zenbatekoa sartuko da kenkariaren oinarrian, betiere gastuok ikuspuntu fiskaletik kengarritzat hartzekoak balira lagapena kostu bidezkoa izan balitz, eta tributuez eta besteren kapitalen interesez eta gainerako finantzaketa-gastuez bestelakoak badira, eta behar bezala kontabilizatuta badaude lagatzailea

kontabilitatea egitera behartuta dagoenean Merkataritza Kodearen edo legeria baliokidearen arabera.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera zehaztutako balioaren gehieneko muga eskualdaturiko ondasunak edo eskubideak merkatuan (eskualdatzeko unean) duen ohiko balioa izango da.

22. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuotaren kenkaria.

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek eskubidea izango dute kuota osotik kentzeko foru arau honen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulaturiko kenkariaren oinarriaren %30.
2. Kenkari honen oinarria ezin da izan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriaren 100eko 35 baino handiagoa. Muga hori gainditzeagatik kendu ez diren zenbatekoak ondoz ondoko hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autoliquidazioetan aplikatu ahal izango dira, muga berak errespetatuz.

Artikulu honen ondorioetarako, zerga-oinarriaren zenbatekoa zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren oinarri orokorraren batura izango da; bi oinarriok Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 65. eta 66. artikuluetan daude jasota.

3. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzea aitorpena aurkeztean egin behar den aukera bat da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu.

23. artikulua. Sozietateen gaineko zergaren kuotaren kenkaria.

1. Sozietateen gaineko Zergaren zergadunek eskubidea izango dute kuota likidotik kentzeko foru arau honen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulaturiko kenkariaren oinarriaren 100eko 30.
2. Zenbaki honetan ezarritako kenkariari Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 67. artikuluan jasotako arauak aplikatuko zaizkio. 3. Artikulu honetan xedatutakoaren aplikazioa autoliquidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta ezin da aldatu autoliquidazioa egiteko borondatezko epea amaituta badago.
3. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzea autoliquidazioa aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu.

24. artikulua. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kuotaren kenkaria.

1. Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik gabe diharduten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek eskubidea izango dute Irabazteko asmorik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubideari buruzko 2002ko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 21. artikulua 1. zenbakian ezarritako kenkaria aplikatzeko.
2. Establezimendu iraunkor baten bitartez diharduten Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek foru arau honen 23. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatu ahal izango dute.

25. artikulua. Emarien, dohaintzen, ekarpenen eta zerbitzuen doako prestazioen ondoriozko errenten salbuespena.

1. Dohaintza-emailearen edo ekarlearen errenta zergapetzen duen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik, Sozietateen gaineko Zergatik edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira foru arau honen 20. artikuluan aipaturiko emariak, dohaintzak, ekarpenak eta zerbitzuen doako prestazioak direla-eta agerian jartzen diren ondare-irabaziak eta errenta positiboak.
2. Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira lursailen eskualdatzeetan agerian jarritako gehikuntzak, edo jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealen eraketan edo eskualdaketan agerian jartzen direnak, eragiketa horiek foru arau honen 20. artikuluan aipaturiko emarien, dohaintzen eta ekarpenen ondorioz egiten direnean.

26. artikulua. Emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazio kengarrien justifikazioa.

1. Emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazio kengarrien benetan egin direla justifikatzeko, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez onartutako eredu informatiboa aurkeztu beharko du erakunde onuradunak.
2. Erakunde onuradunak Zerga Administrazioari bidali beharko dio aurreko zenbakian aipatutako eredu, foru agindu horretan ezarritako moduan eta epeetan. Ereduarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko du:
 - a) Emaria edo dohaintza egin zen data, diruzkoa denean.
 - b) Agiri publikoa edo beste agiri kautoren bat, dohaintzan emandako ondasunaren ematea egiaztatzeko, dirutan egindako emariak edo dohaintzak ez direnean.
 - c) Erakunde dohaintza-hartzaileak dohaintzan eman den objektuari emango dion helburua, haren xede berezia betetzeko.
 - d) Dohaintzaren izaera ezeztazinenaren berariazko aipamena, dohaintzen ezeztapenak arautzen dituzten aginduzko arau zibiletan ezarritakoaren kalterik gabe.
 - e) Zerbitzuen doako prestazioen kasuan, prestazioa egin duen erakundeak emandako zerbitzuaren kostuaren ziurtagiria.
3. Erakunde onuradunak tributu-administrazioari baimena eskatu ahal izango dio artikulua honetan aipatzen den informazio-ereduan ez sartzeko emari, dohaintza, ekarpen edo zerbitzuen doako prestazioak, baldin eta erakunde emaileak ez baditu aplikatzen titulu honetan ezarritako pizgarri fiskalak, eta emari, dohaintza, ekarpen edo zerbitzuen doako prestazioei buruz eman beharreko informazioa lortzeak kostu handia badakarkio erakundeari.

Zenbaki honetan aipatzen den baimena izapidetzeko prozedura erregelamenduz ezarriko da, bai eta erakundeak aurkeztu beharko dituen datuak eta dokumentuak zehaztu ere. Erakundeak aurreko paragrafoan adierazten direnak bete beharko ditu.

Beti ere, tributu-administrazioak baimena eman ondoren, erakunde onuradunak pertsona edo erakunde emaileari eskatu beharko dio berariaz adierazteko ez duela eskubiderik titulu honetan ezarritako pizgarri fiskalak aplikatzeko edo ez dituela aplikatuko.

27. artikulua. Egoiliar ez diren erakunde batzuen alde egindako emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazioa kengarrien justifikazioa.

Erakunde onuraduna foru arau honen 19.2 artikuluan jasotako erakundeetako bat denean, emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazio kengarriak benetan egin direla

justifikatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute onura fiskala aplikatzen duten zergadunek:

- a) Aurreko artikulua 1. zenbakian aipatzen den eredu informatiboan jaso behar den informazioa duen dokumentua; harekin batera, artikulua 2. zenbakian adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da, hala badagokio.
- b) Erakunde onuradunak foru arau honen 4. eta 5. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

III. KAPITULUA MEZENASGOA EGITEKO BESTELAKO ERAK

28. artikulua. Enpresa-lankidetzako hitzarmenak interes orokorreko jardueretan.

1. Foru-arau honen ondorioetarako, interes orokorreko jardueren arloan egindako enpresa-lankidetzako hitzarmenak dira aurreko 19. artikuluan aipaturiko erakundeek erabiltzen dituztenak, erakundearen helburu edo xede berezia betetzeko jarduerak egiteko dirulaguntza baten truke, izan diruzkoa, gauzazkoa edo laguntza eman duenaren berezko jarduera ekonomikoan egindako zerbitzu-prestazioa, laguntza eman duenak jarduera horietan izan duen partaidetza edozein bideren bitartez hedatzeko konpromisoa idatziz hartzeko. Laguntza eman duenak ere egin ahal izango du hedapen hori.

Aurreko paragrafoan aipatutako hedapena, artikulua honetan definitutako lankidetzak hitzarmenen esparruan, ez da zerbitzu-prestazio bat balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

2. Ordaindutako zenbatekoak edo egindako gastuak kengarriak izango dira erakunde laguntzailearen sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarria zehazteko, edo establezimendu iraunkorraren bitartez diharduten zergadunen ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zerga-oinarria zehazteko, edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunen jarduera ekonomikoaren etekin garbia zehazteko.

Artikulua honen 1. apartatua aipatzen diren dirulaguntzak direla-eta ager daitezkeen errenta positiboak laguntza eman duenaren errenta kargatzen duten zergetatik salbuetsita egongo dira.

Apartatu honetan aipatzen den gastu kengarria aplikatzea aitorpena aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 128. artikuluan edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu.

3. Lankidetzak hitzarmen horiek betetzeko ordaindutako zenbatekoei aplikatu beharreko zerga-araubidea ez da bateragarria izango foru arau honetan ezarritako gainerako zerga-pizgarriekin.

29. artikulua. Interes orokorreko jardueretan egindako gastuak.

1. Sozietateen gaineko Zergaren, establezimendu iraunkorraren bidez diharduten zergadunen Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarria zehazteko, eta, enpresaburu eta profesionalen kasuan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarria zehazteko, interes orokorreko helburuetarako egindako gastuak kengarritzat hartuko dira.

Apartatu honetan aipatzen den gastu kengarria aplikatzea aitorpena aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 128. artikuluan edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal

izango da, hain zuzen ere, zergaren aitortzea egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu.

2. Aurreko zenbakian aipatzen den interes orokorreko jardueretan egindako gastuen kenkaria ez da bateragarria izango foru arau honetan ezarritako gainerako zerga- pizgarriekin.

30. artikulua. Arte-lanak eskuratzea dohaintzan eskaintzeko.

1. Sozietateen gaineko Zergaren, Establezimendu iraunkorraren bidez diharduten zergadunen Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarria zehazteko, eta, enpresaburu eta profesionalen kasuan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunen jarduera ekonomikoaren etekin garbia zehazteko partida kengarritzat hartuko da erakunde onuradun gisa foru arau honen II. tituluaren I.kapitulua aplikatu behar zaien erakundeei dohaintzan emateko eskuratutako arte-lanen eskuraketa-balio, betiere erakunde horiek lanak onartzen badituzte.

Artikulu honen ondorioarako, arte-lantzat joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko araudian zehazturiko arte-gaiak, antzinako gauzak eta bildumako gaiak, baldin eta balio historikoa edo artistikoa badute.

2. Kenkari hori aplikatu ahal izateko, dohaintzaren eskaintza honako baldintza eta betekizun hauen arabera egin beharko da:

- a) Ondasuna erakunde dohaintza-hartzaileei gehienez jota 5 urteko epean eskualdatzeko konpromisoa, eskaintza behin betiko onartzen denetik zenbatzen hasita. Behin betiko onartzeko, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren txostena beharko da, ondasuna arte-lan gisa kalifikatzeko eta haren balorazioa zehazteko. Txosten hori hiru hilabeteko epean bidali behar da, dohaintzaren eskaintza aurkezten denetik zenbatzen hasita.

Dohaintzan emandako artelanak Euskal Kultura Ondarearen Erregistroan babes bereziko eta babes ertaineko ondasun gisa inskribatuta daudenean (Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean aipatzen dira), txosten hori Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari eskatu beharko zaio. Baldin eta artelana ekainaren 25eko 16/1985 Legean aipatzen den ondare historikokoa bada edo edozein autonomia erkidegotako ondare historikokoa, kasuan kasuko arautegiaren arabera eskudun den organoari eskatu behar zaio txostena.

Erakunde dohaintza-hartzaileak dohaintza onartu eta gero, atzeraezina izango da eta ondasuna ezin izango zaie hirugarren batzuei eman.

- b) Erakundeek edo pertsonak ondasuna erosi eta hurrengo hilaren barruan eskaini beharko dute dohaintzan.
- c) Ondasuna erakunde dohaintza-hartzaileari behin betiko eskualdatu arte dagoen denboran, ondasuna eskuragarri egongo da jendaurrean erakusteko eta ikertzeko, dohaintza-emailearen eta erakunde dohaintza-hartzailearen artean egindako hitzarmenean ezarritako baldintzetan.
- d) Denbora-tarte horretan, kenkari honi atxikitzen zaizkion pertsonak ezin izango dute narriaduraren ondoriozko galerarik deduzitu bidezko dohaintzarik egin eskaintzan sarturiko ondasunei dagokienez.
- e) Erakundea likidatuz gero, arte-lanaren jabetza erakunde dohaintza-hartzaileari adjudikatuko zaio.
- f) Eskaintza jasotzen duen erakunde dohaintza-hartzailea foru-arau honetako II. titulu I. kapitulu jasotakoetako bat denean, erakunde horretako bazkideek, sortzaileek, patronatuko kideek, gerenteek, ezkontideek, izatezko bikotekideek nahiz laugarren gradurainoko ahaideek (gradu hori barne) ezin izango dute jaso pizgarri hori.

3. Kantitate kengarrien zenbatekoa, guztira, ondasunaren eskuratze-kostua izango da, edo Administrazioak finkaturiko tasazio-balioa, azken hori txikiagoa denean. Azken kasu horretan, erakundeak egindako dohaintza-eskaintza kentzeko aukera izango du, komenigarri baderitzo.
4. Kenkaria zati berdinetan egingo da, hitzarturiko aldiaren barruan, aurreko 2. zenbakiko a) letran ezarritakoaren arabera, eta ekitaldi bakoitzeko gehieneko muga, berriz, hamar zati aldiaren barruko urte kopurua eginez ateratzen den ehunekoa izango da.

Muga hori Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 55. artikuluan aipatzen den zerga-oinarri negatiboen konpentsazioaren aurreko zerga-oinarriari dagokio.

Enpresaburuen eta profesionalen kasuan, muga horren zenbaketa zergadunak egindako jarduera ekonomikoen etekinei dagokien zerga-oinarri orokorraren zatiaren arabera ezarriko da.

5. Artikulu honetan aipatzen den gastu kengarria aplikatzea aitorpena aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 128. artikuluan edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitorpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu.
6. Artikulu honetan ezarritako kenkaria, ondasun berari dagokionez, ez da bateragarria izango foru arau honen 22., 23., 24. eta 42. artikuluetan ezarritako kenkariekin.

IV. KAPITULUA

LEHENTASUNEZKO JARDUERAK ETA OHIZ KANPOKO INTERES PUBLIKOA DUTEN GERTAEREI LAGUNTZA EMATEKO PROGRAMAK

LEHENENGO ATALA LEHENTASUNEZKO JARDUERAK

31. artikulua. Mezenasgoaren lehentasunezko eremuak.

Lehentasuneko jardueraren deklarazio-ondorioetarako, mezenasgoaren lehentasunezko arlotzat joko dira hauek:

- a) Ondarearen eta kulturaren arloa.
- b) Kultura-zabalkundearen arloa.
- c) Euskararen sustapenaren arloa.
- d) Kirolaren arloa.
- e) Gazteriaren arloa.
- f) Garapenerako lankidetzaren eta kultur aniztasunaren arloa.
- g) Gizarte-inklusioaren arloa.
- h) Hirugarren sektore sozialaren arloa.
- i) Zahartzearen arloa.
- j) Emakume eta gizonen berdintasunaren arloa.

32. artikulua. Ondarearen eta kulturaren arloa.

1. Ondarearen eta kulturaren arloan lehentasunezkoztat jotzen dira jarduerak hauek:

- Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa.
- Bilbao Bizkaia Museoak, S.L.
- Eleiz Museoa. Bilbo.
- Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioa.
- Bilboko Itsasadarra Itsas Museoaren Fundazioa.
- Bilboko Arte Ederren Museoaren Fundazioa.
- Gernikako Bakearen Museoaren Fundazioa.
- Durangoko Arte eta Historia Museoa.
- Euskal Abertzaletasunaren Museoa (GOAZ Museoa).
- Aste Santuko Pasoen Museoa. Bilbo.
- Simón Bolívar Museoa.
- Medikuntza eta Zientzia Historiaren Euskal Museoa.
- Bizkaiko kultur ondarea, zibila zein erlijioso, birgaitzeko eta/edo zaharberritu-kontserbatzeko esku-hartzeak.
- Kultur ondarea hedatzeko proiektuak, BizkaiKOA enpresa-erakunde publiko foralaren bidez garatuak.
- «Transbordador de Vizcaya, S.L.» sozietateak egindako esku-hartzeak eta jarduerak.
- Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporaneo de Bilbao, S.L.
- Hontza Museoa Fundazioa/Natur Zientzien Museoa.

2. Halaber, jarduerak honetan sartutako lehentasunezko jardueratzat jo ahal izango dira Euskal Kultur Ondareari buruzko 1990eko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko II. tituluko I. kapituluaren ezarritako dagoena dela bide kalifikatutako kultur ondasun diren Bizkaiko higiezinak artatu, zaharberritu eta hobetzeko obrak egitea. Erregelamenduz ezarritako den prozeduraren bidez joko dira lehentasunezkoztat. Obrak egiteko esku-hartzeak, betiere, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren baimena izan beharko du.

33. artikulua. Kultura-zabalkundearen arloa.

1. Kultura-zabalkundearen arloan lehentasunezkoztat jotzen dira jarduerak hauek:

- Bilboko opera denboraldia, OLBEk (Operaren Lagunen Bilboko Elkarteak) antolatzen duena.
- Bilbao Orkestra Sinfonikoaren (BOS) kontzertu-denboraldia.
- Bilboko Arriaga Antzokia KJE SArek arte eszenikoen denboraldia.

- Barakaldo Antzokiaren arte eszenikoen denboraldia.
- Serantes Kultur Aretoaren arte eszenikoen denboraldia.
- Basauriko Social Antzokiaren arte eszenikoen denboraldia.
- Serantes Kultur Aretoaren Nazioarteko Antzerki Jaialdia.
- Elai Alai Dantzari Taldearen Nazioarteko Folklore Jaialdia.
- Getxoko Kultur Etxearen Nazioarteko Folk Jaialdia.
- Elai Alai Fundazioaren Portugaleteko Folklore Azoka.
- Getxoko Kultur Etxearen Nazioarteko Jazz Jaialdia.
- Musika klasikoaren «Musika-Música» jaialdia. Bilbao 700 III Milenium Fundazioa.
- «Dantzaldia» nazioarteko dantza-jaialdia. La Fundación.
- Ikus-arteetako produkzioak. Consonni.
- Umoredun Azoka-Leioako Kaleko Artisten Azoka. Leioako Udala.
- Bilboko Koral Elkarteak antolatutako kontzertuen egitaraua.
- «Bilbo Arte»ren erakusketen programa.
- Getxophoto, Begihandi Kultur Taldeak antolatua.
- Umoredun Literatura eta Artearen Nazioarteko Astea. Asociación literaria la Risa de Bilbao-Bilboko Barrea literatur elkarte.
- ACT jaialdia, Arte Eszenikoen Sortzaile Berrien Nazioarteko Jaialdia. Barakaldoko Teatrako Elkarte.
- Pablo eta Juan de Otaolaren ikus-arten bekak, Basauriko Udal Kultur Etxeak antolatuak.
- ZAWP (Zorrozaurre Art Work in Progress) programa.
- Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioa-Fundación Puerto y Ria de Bilbao fundazioaren jarduerak.
- Bilboko Elkarte Filarmonikoaren kontzertu-denboraldia.
- Ziortzako Kontzertuak. Ziortzako Kontzertuak Kultur Elkarte.
- Azkuna Zentroaren urteko programa kulturala.
- FIG Bilbao. Urtekoa. Arthazik sustatua.
- Loraldia.
- Urdaibai Bird Center.
- Ekonomi Ituna sustatu eta aldezteko «Ad Concordiam» elkarte.
- Deusto Fundazioa.

- Basques 2.0 Fundazioa: a Laboratory for Thought and Inquiry.
 - Deusto Campus Mundus 2015 proiektua.
 - Euskampus proiektua.
 - Agirre Lehendakaria Fundazioa.
2. Halaber, jarduera-arlo honetan sartutako lehentasunezko jardueratzat jo ahal izango dira beste batzuk, erregelamenduz ezarriko den prozeduraren bidez, baldintza hauek betetzen badituzte:
- a) Gutxienez 20.000 euroko aurrekontua izatea.
- Muga hau ez da aplikatuko kasu hauetan: oso ikuskarriak ez direlako babesa lortzeko arazoak dituzten kultura-diziplina minoritarioen kasuan eta interes handiko jardueren kasuan.
- b) Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailak jarduera egiteko baimena ematea, eta berariaz adieraztea lehentasunezkoa dela.

34. artikulua. Euskararen sustapenaren arloa.

1. Euskararen sustapenaren arloan lehentasunezkoztat jotzen dira jarduera hauek:
- Ibilaldia, Ibilaldia kultur elkarteak antolatua.
 - Euskal Herriko Etnografi Atlasaren ingurukoak.
 - Euskalkien atlasaren ingurukoak.
 - Durangoko Azoka.
 - Azkue Fundazioak arlo honetan antolatzen dituenak.
 - Bilboko Euskararen Etxearen bitartez euskara zabaltzeko eta sustatzeko egindako proiektuak.
 - Elhuyar Fundazioak sustatutako proiektuak: «Zientzien Azoka» eta «Bizilabe gazteentzako ikerketa zentroa».
2. Halaber, jarduera-arlo honetan sartutako lehentasunezko jardueratzat jo ahal izango dira beste batzuk, erregelamenduz ezarriko den prozeduraren bidez, baina ezinbestekoa da Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailak jarduera hori egiteko baimena ematea, eta berariaz adieraztea lehentasunezkoa dela.

35. artikulua. Kirolaren arloa.

1. Kirolaren arloan lehentasunezkoztat jotzen dira jarduera hauek:
- Bizkaia-Bizkaialde fundazioa.
 - Athletic Club Fundazioa.
 - Bizkaiko Kirol Federakundeen Elkarte.
 - Euskadiko Txirrindularitza Iraskundea.
 - Baque Iraskundea.

- Euskal Kirol Federazioen Batasuna.
 - Bilbao Basket Fundazioa.
 - Euskal Pilotaren Munduko Kontseilua Fundazioa.
 - Euskadi Kirola Fundazioa.
 - Lagun Aro Fundazioa.
 - Bizkaia Basket Fundazioa.
 - Gela Pedagogikoa kultur eta kirol elkarte.
2. Halaber, jarduera-arlo honetan sartutako lehentasunezko jardueratzat jo ahal izango dira hauek, erregelamenduz ezarriko den prozeduraren bidez, honako kasu hauetan:
1. Bizkaiko Lurralde Historikoko herri administrazioek eskola kirolaren arloan antolatzen edo babesten dituzten jarduerak.
 2. Bizkaiko Lurralde Historikoa eta bertako udalerrriak ezagutarazten dituzten kirol- klubek jarduerak eta kirol-ekitaldiak edo -emanaldiak, betekizun hauek betetzen dituztenean:
 - a) Nazioartekoa izatea, estatuz gaindiko kirol-federazioen egutegi ofizialen barruan dagoelako edo federazio horiek kirol-interes berezia aintzatetsi diotelako.
 - b) Autonomia Erkidegoko edo Estatuko gizarte-komunikabideetan agertzea.
 - c) Aurrekontua 25.000 eurotik gorakoa izatea.

Atal honetan ezarritakoa gorabehera, honako ekitaldi hauek ez dute bete behar zenbaki horretako a) letran ezartzen dena:

 - Xede nagusia kirolaren sustapena izanik bi mila kirolari baino gehiago biltzen dituztenak.
 - Jardueraren zati handiena egiten duten Bizkaiko kirol-klubek kirol ez-profesionalen Estatu mailako kirol-lehiaketa ofizialetako goreneko bi kategorietan parte hartzea.
 3. Udalen edo Aldundiaren titulartasuneko kirol-instalazio berriak egitea eta haien kirol-instalazioak artatu, eraberritu edo egokitzeko obrak egitea.
 4. Kirol-klubek elkarrekin jarduerak, baldin eta horren ondorioz desagertu egiten badira elkartu edo batu diren taldeak.
 5. Emakume kirolariak dituzten, emakume kirolariak izatea sustatzen duten eta jardueraren zati handiena Bizkaian egiten duten Bizkaiko klubek egiten dituzten jarduerak.
 6. Kirolari desgaituak dituzten, kirolari desgaituak izatea sustatzen duten eta jardueraren zati handiena Bizkaian egiten duten Bizkaiko klubek egiten dituzten jarduerak.
 7. Euskal Herriko kirol modalitateetako kirola egiten duten eta jardueraren zati handiena Bizkaian egiten duten Bizkaiko kirol-erakundeek jarduerak. Euskal Herriko kirol modalitateetat jotzen dira arraunketa (tostako arraunketa), euskal pilota eta herri kirolak.

36. artikulua. Gazteriaren arloa.

1. Gazteriaren arloan lehentasunezkoztat jotzen dira jarduerak hauek:
 - Euskal Encounter jarduera, Euskaltel Fundazioak antolatua.
 - Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Bizkaiko Lurralde Historikoan antolatutako jarduerak.
 - Bizkaiko Lurralde Historikoan onarpen ofiziala duten eta jardueraren zati handiena lurralde horretan egiten duten astialdiko hezitzaileen eskolek antolatutako astialdiko prestakuntza jarduerak.
2. Halaber, jarduera-arlo honetan sartutako lehentasunezko jardueratzat jo ahal izango dira beste batzuk, erregelamenduz ezarriko den prozeduraren bidez, baldintza hauek betetzen badituzte:
 - a) Irabazteko asmorik gabeko entitateek egitea, baldin eta Bizkaian egiten badute jarduerarik handiena, eta Bizkaiko Foru Aldundian haurren, nerabeen eta gazteen arloan eskumena duten unitateek edo horien beste edozein unitatek diruz lagundutako jarduerak garatzen edo egiten badituzte, eta diruz lagundutako jardueren edo proiektuen hartzaileak hurrengo b) letran aipatzen diren gazteak badira.
 - b) Zazpi eta hogeita bederatzi urte bitarteko gazteentzako izatea.

37. artikulua. Garapenerako lankidetzaren eta kultur aniztasunaren arloa.

Jarduera-arlo honetan sartutako lehentasunezko jardueratzat jo ahal izango dira, erregelamenduz ezarriko den prozeduraren bidez, baldintza hauek betetzen dituzten jarduerak:

- a) Jardueraren zati handiena Bizkaian edo Bizkaitik garatzen duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek egitea jarduerak, eta betekizun hauetako bat betetzea:
 - Likidatutako azken aurrekontua 200.000 eurotik gorakoa izatea edo guztira 200.000 eurotik gorako proiektuak kudeatzea.
 - Garapenerako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzaileak lehentasunezkoztat jotako herrialdeetan eta sektoreetan egitea proiektuak, bereziki Afrikan.
- b) Jarduerak betiere izatea Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak lehentasunezkoztat jotzeko emandako onarpena.

38. artikulua. Gizarte-inklusioren arloa.

Jarduera-arlo honetan sartutako lehentasunezko jardueratzat jo ahal izango dira, erregelamenduz ezarriko den prozeduraren bidez, baldintza hauek betetzen dituzten jarduerak:

- a) Jardueraren zati handiena garatzen duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek egitea jarduerak, eta betekizun hauetako bat betetzea:
 - Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan izena emanda egotea.
 - Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritzaren lerro estrategikoekin bat datozen proiektuak egitea.
- b) Jarduerak betiere izatea Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak lehentasunezkoztat jotzeko emandako onarpena.

39. artikulua. Hirugarren sektore sozialaren arloa.

1. Hirugarren sektore sozialaren arloan lehentasunezkoztat jotzen dira jarduerak hauek:
 - Lantegi Batuak Fundazioa.
 - Fekoor, Gutxitasun Fisikoa edo/eta Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea.
 - Avifes, Gaixotasun mentala duten pertsonen eta haien senideen Bizkaiko elkarte.
 - Gizardatz elkarte.
2. Halaber, jarduerak honetan sartutako jarduerak lehentasunezkoztat jo ahal izango dira, erregelamenduz ezarritako prozeduraren bidez, baldintza hauek betetzen badituzte:
 - a) Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan inskribatuta egotea.
 - b) Erakunde sustatzaileek beren jarduerak gehienak Bizkaian egitea edo beren jardueraren hartzaileak Bizkaian bizi diren pertsonak izatea.
 - c) Proiektuaren edo ekintzaren hartzaile gehienak egoera hauetako batean egotea, betiere egoera hori egiaztatu ahal bada:
 - Gizarte-bazterketako egoeran edo hala egoteko arriskuan egotea.
 - Babesik gabe edo hala egoteko arriskuan egotea.
 - Mendekotasun-egoeran hala egoteko arriskuan egotea.
 - %33eko edo hortik gorako desgaitasuna izatea.
 - Aurrekoen zaintzaileak, hartzaileak edo tutoreak izatea, haiekin lehen graduko odolkidetasun-loturarik gabekoak, edo adoptatzaileak izatea.
 - d) Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak jarduerak egiteko baimena ematea, eta berariaz adieraztea lehentasunezkoa dela.
3. Horrez gainera, jarduerak honetan sartutako jarduerak lehentasunezkoztat jo ahal izango dira, erregelamenduz ezarritako prozeduraren bidez, baldintza hauek betetzen badituzte:
 - a) Nazioarte mailakoak izatea, gehien bat beste estatu batzuetatik datozen pertsonak elkartzen dituztelako.
 - b) 50.000 eurotik gorako aurrekontua izatea.
 - c) Bizkaiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaia osatzen duten erakundeetako partaide izatea, gutxienez.
 - d) Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak jarduerak egiteko baimena ematea, eta berariaz adieraztea lehentasunezkoa dela.

40. artikulua. Zahartzearen arloa.

1. Zahartzearen arloaren barruan, lehentasunezkoztat jotzen dira jarduerak hauek:
 - Nagusiak Bizkaiko Jubilatuen eta Pentsiodunen klub, etxe eta zentroen elkarte.

- Hartu-emanak elkarteak.
2. Halaber, jarduera-arlo honetan sartutako jarduerak lehentasunezkoztat jo ahal izango dira, erregelamenduz ezarritako prozeduraren bidez, baldintza hauek betetzen badituzte:
 - a) Nazioarte mailakoak izatea, gehien bat beste estatu batzuetatik datozen pertsonak elkartzen dituztelako.
 - b) 50.000 eurotik gorako aurrekontua izatea.
 - c) Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak jarduera egiteko baimena ematea, eta berariaz adieraztea lehentasunezkoa dela.

41. artikulua. Emakume eta gizonen berdintasunaren arloa.

Halaber, jarduera-arlo honetan sartutako jarduerak lehentasunezkoztat jo ahal izango dira, erregelamenduz ezarritako prozeduraren bidez, baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Jardueraren zati handiena Bizkaian garatzen edo kudeatzen duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek egitea jarduerak.
- b) Erakundeen jarduerak bat etortzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 foru arauaren lerro estrategikoekin.
- c) Jarduerak betiere izatea Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak lehentasunezkoztat jotzeko emandako onarpena.

42. artikulua. Lehentasunezko jarduerak direla-eta mezenasgoari emandako onura fiskalak.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoarentzat ehentasunezkoztat jotako jarduerak onura fiskal hauek aplikatu ahal izango dituzte:

- a) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek eskubidea izango dute kuota osotik kentzeko lehentasunezkoztat jotako jardueretara bideratutako kopuruen 100eko 45.

Kenkari horren oinarria ezin da izan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriaren 100eko 35 baino handiagoa. Muga hori gainditzeagatik kendu ez diren zenbatekoak ondoz ondoko hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izango dira, muga berak errespetatuz.

Muga horreen ondorioetarako, zerga-oinarriaren zenbatekoa zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren oinarri orokorraren batura izango da; bi oinarriok Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 65. eta 66. artikuluetan daude jasota.

- b) Sozietateen gaineko Zergaren zergadunek edo establezimendu iraunkorren bitartez diharduten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek eskubidea izango dute kuota likidotik kentzeko lehentasunezkoztat jotako jardueretara bideratutako kopuruen 100eko 45, bai eta publizitate-babeseke kontratuak direla bide emandako kopuruak direnean ere.

Zerbitzuen doako prestazioak propaganda eta publizitate-gastuak badira eta lehentasunezko jarduerak sustatzeko zuzenean erabiltzen badira, orduan, kenkariaren oinarria gastuaren edo egindako inbertsioaren zenbateko osoa izango da, publizitate-euskarriaren edukiaren helburua lehentasuneko jardueren zabalkundea denean. Bestela, kenkariaren oinarria jasandako gastuaren edo egindako inbertsioaren 100eko 25 izango da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, beharrezkoa izango da gastua edo inbertsioa egiten duen erakundeak eta erakunde onuradunak batera aurkeztea tributu-administrazioari eskaera bat. Eskaera horretan deskribatu beharko da lehentasunezko jardueraren zabalkunde- edo sustapen-proiektua, bai eta zer ondorio espero diren interes orokorreko helburuak betetzeari dagokionez ere. Horrez gainera, tributu-administrazioak baimen espresua eman beharko du, gastuak edo inbertsioak egin aurretik, erregelamenduz ezarriko den prozedurarekin bat.

Letra honetan aipatutako kenkariaren oinarria osatzeko zenbatekoak ezin izango dira jo zerga-oinarria zehazteko gastu kengarritzat.

Letra honetan ezarritako kenkariari Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 67. artikuluan jasotako arauak aplikatuko zaizkio.

- c) Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik gabe diharduten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei Irabazteko asmorik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubideari buruzko 2002ko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 22. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.
2. Aurreko apartatuko a) eta b) letretan xedatutakoa aplikatzea aitortpena aurkeztean egin behar den aukera bat da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 105. artikuluan eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, hurrenez hurren. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitortpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretizko errekerimendurik egin ez badu.
3. Kenkariak aplikatzeko ekitaldia lehentasunezko jarduerak egiten diren urteari dagokiona izango da.
4. Artikulu honetan jasotako onura fiskalak ez dira bateragarriak izango foru arau honen 22., 23., 24. eta 30. artikuluetan jasotakoekin.
5. Artikulu honetan ezarritako onura fiskalak aplikatzeko, beharrezkoa izango da lehentasuneko jardueretarako emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazioak benetan egin direla justifikatzea foru-arau honen 26. artikuluan ezarritako moduan.

BIGARREN ATALA

OHIZ KANPOKO INTERES PUBLIKOA DUTEN GERTAEREI LAGUNTZA EMATEKO PROGRAMAK

43. artikulua. Ohiz kanpoko interes publikoa duten gertaerei laguntza emateko programak.

1. Bizkaiko Foru Aldundiak, salbuespenez, ohiz kanpoko interes publikoa duten gertaerei laguntza emateko programak onetsi ahal izango ditu.
2. Programa onesten duen foru dekretuak gutxienez honako hau arautuko du:
 - a) Programaren iraupena; hiru urtekoa izango da gehienez.
 - b) Programa betearazteaz arduratuko den eta egindako gastuak nahiz inbertsioak programaren helburuetara zein planetara egokitzen direla ziurtatzen duen administrazio- organoaren sorrera.

Organo horretan gertaeran interesa duten herri administrazioak egongo dira ordezkatuta, eta, beti, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saila. Ziurtagiria jasotzeko, beharrezkoa da sail horren ordezkaritzaren aldeko botoa.

- c) Gertaera sustatzeko antolatuko diren jardueren oinarrizko lerroak; hala ere, geroago, administrazio-organoak jarduera berezietarako planetan eta programetan garatu ahal izango ditu lerro horiek.

3. Onura fiskal hauek aplikatu ahal zaizkie programoi:

Lehenengoa. Sozietateen gaineko Zergaren zergadunek, jarduera ekonomikoak egiten dituzten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek eta establezimendu iraunkorraren bitartez diharduten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek gastuen eta inbertsioen 100eko 15 kendu ahal izango dute zergaren kuota likidotik, baldin eta, kasuan kasuko administrazio-organoak ezarritako jardueren planak eta programak betetzeko, honako hau egiten badute:

- a) Ibilgetu materialaren elementu berriak eskuratzea; lurrak ez dira inoiz ere halakotzat hartuko.

Telekomunikazioen edo elektrizitatearen zerbitzu-sareak instalatzeko edo handitzeko eta ura, gasa nahiz beste hornidura batzuk hornitzeko egiten diren inbertsioak ez dira joko kasuan kasuko administrazio-organoak ezarritako jardueren planak eta programak betetzeko egindakotzat.

- b) Programaren eraginpeko eremu fisikoa edertzeko lagungarriak diren eraikinak eta beste eraikuntza batzuk birgaitzea.

Obra horiek etxebizitzaren arloko jarduketa babestuen finantziarioari buruzko araudian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, baita programak eragiten dien udalek eta programa antolatzeke nahiz gauzatzeko ardura duen administrazio-organoak horri buruz ezarritako arau arkitektonikoak eta hirigintzakoak ere.

- c) Urte anitzerako propaganda- eta publizitate-gastuak egitea, kasuan kasuko gertaera zuzenean sustatzeko baliozkoak direnean.

Publizitate-euskarriaren edukia, funtsean, gertaeraren zabalkundea egiteko denean, kenkariaren oinarria egindako inbertsioaren zenbateko osoa izango da. Bestela, kenkariaren oinarria inbertsio horren 100eko 25 izango da.

Azpizenbaki honetan ezarritako kenkariari Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 67. artikuluan jasotako arauak aplikatuko zaizkio.

Apartatu honetan xedatutakoa aitortpena aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 128. artikuluan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 105. artikuluan xedatutakoaren arabera. Zergaldi baterako egindako aukera geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere, zergaren aitortpena egiteko borondatezko epea amaitu ondoren, baina Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badu.

Bigarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, Sozietateen gaineko Zergaren zergadunek eta establezimendu iraunkorraren bitartez diharduten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, hurrenez hurren, foru arau honen 22., 23. eta 24. artikuluetan ezarritako kenkariak aplikatzeko eskubidea izango dute, aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera sortzen den organoaren alde egindako dohaintzen eta ekarpenen ondorioz.

Aurreko artikuluan ezarritako lehentasunezko mezenasgo-araubidea gertaerarekin lortutako programei eta jarduerari aplikatuko zaie, betiere programak eta jarduerak gauzatzeko ardura duen administrazio-organoak onesten baditu.

Hirugarrena. Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren mendean dauden eskualdaketek 100eko 95eko hoberia izango dute kuotan,

eskuraturiko ondasunak eta eskubideak zenbaki honen lehenengo azpizenbakian aipaturiko kenkarirako eskubidea duten inbertsioetarako baino ez badira erabiltzen.

Laugarrena. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren subjektu pasiboek 100eko 95eko hobaria izango dute kuotetan eta errekaruetan, kasuan kasuko gertaeran egin beharreko jarduera artistikoei, kulturei, zientifikoei edo kirolekoei dagokienez, baldin eta jarduera horiek administrazio-organo eskudunak prestatutako jardueren planetan eta programetan sartzen badira.

Bostgarrena. Kasuan kasuko programaren helburuak garatzen dituzten enpresek edo erakundeek 100eko 95eko hobaria izango dute programa horren garapenari soilik lotutako eragiketen gaineko tokiko zerga eta tasa guztietan.

4. Zerga-administrazioak zerga-hobarien aplikaziorako behar diren egoerak edo baldintzak betetzen direla egiaztatuko du, eta, behar izanez gero, bidezko arauketa egingo du.
5. Ohiz kanpoko interes publikoa duten gertaerei laguntza emateko programetan ezarritako onura fiskalak aplikatzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da.

IV. TITULUA BESTE XEDAPEN BATZUK

I. KAPITULUA ARAUBIDE FISKAL BEREZIA APLIKATZEKO BESTE KASU BATZUK

44. artikulua. Euskaltzaindia, Espainiako Institutua eta errege akademiak.

Foru arau honen 18. artikuluan ezarritakoa Euskaltzaindiari, Espainiako Institutuari eta horren barruko errege akademiei aplikatuko zaie, baita hizkuntza ofizial propioa duten autonomia-erkidegoetan Euskaltzaindiaren antzeko helburuak dituzten erakundeei ere.

45. artikulua. Gurutze Gorria eta ONCE.

Foru arau honen 18. artikuluan ezarritakoa Gurutze Gorriari, Espainiako Itsuen Erakundeari eta Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batzuetan irabazi-asmorik gabe gizarte- edo laguntza-lanetan ari diren pareko erakundeei aplikatuko zaie.

46. artikulua. Erakunde erlijiosoen fundazioak.

Foru arau honetan ezarritakoak ez die eragiten Eliza Katolikoarekiko akordioetan eta Estatuak elizekin, konfesioekin eta komunitate erlijiosoen sinaturiko lankidetzak akordioetan ezarritakoari, ezta erakunde horien fundazioetarako emandako arauak ere. Fundazio horiek foru arau honen 7. artikulutik 28. artikulura ezarritako zerga-araubidea aplikatu ahal izango dute, betiere azken kasu horretan Erakunde Erlijiosoen Erregistroan inskribaturik daudela dioen ziurtagiria aurkezten badute eta foru arau honen 5. artikuluan 5. zenbakian ezarritako baldintza betetzen badute.

47. artikulua. Eliza Katolikoaren eta beste eliza, konfesio eta komunitate erlijioso batzuen zerga-araubidea.

1. Foru arau honen 7. artikulutik 18. artikulura (biak barne) ezarritako araubidea Eliza Katolikoari eta Espainiako estatuarekin lankidetzak akordioak sinatuta dituzten elizei, konfesioei eta komunitate erlijiosoei aplikatuko zaie, baina horrek ez die eragingo aurreko artikuluan aipaturiko akordioetan ezarritakoari.
2. Foru arau honetan ezarritako araubidea hauei ere aplikatuko zaie: Espainiako estatuak eta Vatikanoko sinaturiko Gai Ekonomiei buruzko Akordioaren V. artikuluan jasotako elkarte eta erakunde erlijiosoei, eta Estatuaren eta Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioaren arteko Lankidetzak Akordioa onesten duen 1992ko azaroaren 10eko 24/1992

Legearen 11. artikulua 5. zenbakian, Estatuaren eta Espainiako Komunitate Israelarren Federazioaren arteko Lankidetzak Akordioa onesten duen 1992ko azaroaren 10eko 25/1992 Legearen 11. artikulua 5. zenbakian eta Estatuaren eta Espainiako Batzorde Islamikoaren arteko Lankidetzak Akordioa onesten duen 1992ko azaroaren 10eko 26/1992 Legearen 11. artikulua 4. zenbakian jasotako erakundeei, baldin eta foru arau honek irabazi-asmorik gabeko erakundeei araubide hori aplikatzeko eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

3. Espainiako estatuaren eta Vatikanoren arteko Gai Ekonomikoei buruzko Akordioaren IV. eta V. artikuluetan jasotako Eliza Katolikoaren barruko erakundeak eta Espainiako estatuak beste eliza, konfesio eta komunitate erlijioso batzuekin sinaturiko lankidetzak akordioetan jasotako erakundeak mezenasgoaren erakunde onuraduntzat hartuko dira foru arau honen 19. artikulutik 28. artikulura (biak barne) ezarritako ondorioetarako.

48. artikulua. Kirol-federazioak.

1. Kirol-federazioek kirol-ikuskizunetan lortutako diru-sarrerak ez dira sartuko estatutuetan jasotako xedeari edo helburuari lotu gabeko ustiapen ekonomikoen diru-sarreraren 100eko 40aren barruan (foru arau honetan 5. artikulua 4. zenbakiko baldintzan aipaturiko sarrerak).
2. Kirol-federazioek lortutako errentak Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira baldin eta selekzio nazionalen edo autonomikoen lehiaketa ofizialak edo adiskidetasunezko lehiaketak egitearen ondorioz edo haien emankizunaren edo zabalkundearen ondorioz lortutakoak badira, betiere lehiaketa horien antolaketa federazioen eskumen eskusibokoa bada.
3. Foru arau honen 5. artikulua 5. 6. eta 7. zenbakietan jasotako baldintzak ezin izango zaizkie aplikatu artikulua honetan araututako erakundeei.

49. artikulua. Alderdi politikoen zerga-araubidea.

1. Alderdi politikoen finantziarioari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 4.2 artikuluan aipatzen diren dohaintzei foru arau honetan ezarritako araubidea aplikatuko zaie.
2. Bateriaezinak izango dira ekarpen edo dohaintza horientzat foru arau honen 22. artikuluan ezarritako kenkaria eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 22. artikulua b) letran eta 93. artikulua 2. zenbakian ezarritako kenkariak.
3. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan aurrez ikusi gabeko guztian, alderdi politikoei zergei buruzko arau orokorrak ezarriko zaizkie, eta, bereziki, foru arau honetan ezarritakoa.

II. KAPITULUA EZ-BETETZEAREN ARAUBIDEA

50. artikulua. Ez-betetzearen ondorioak.

Foru arau honen 19.1.a) artikuluan eta 19.2.a) artikuluan aipatzen diren mezenasgoaren erakunde onuradunek foru arau honen 5. artikuluan ezarritako betekizunak ez betetzea, edo foru arau honen 17.2 artikulua azken paragrafoan edo 17.3 artikuluan ezarritako zehapenak ezartzea, III. tituluan ezarritako zerga-onurak aplikatu dituenarentzat, ez-betetze hori gertatzen den ekitaldiari dagozkion sartu gabeko zenbateko guztiak eta dagozkion berandutze-interesak ordaintzeko betebeharra ezarriko du, eragindako tributuari dagozkionez eta haren araudi erregulatuaren arabera.

Zehazki, artikulua honetan ezarritako betebeharra dagokie, batetik, zuzen aplikatu ez diren emaitzak eta diru-sarrerak lortu ziren ekitaldiari dagozkion sartu gabeko kopuruei, foru arau honen 5. artikulua 2. ezarritako baldintza denean, eta, bestetik, ez-betetzea gertatzen den

ekitaldiari eta aurreko hirurei dagozkien sartu gabeko diru-sarrerei, artikuluko beraren 8. eta 9. zenbakietan ezarritako baldintza denean. Horrez gainera, bidezkoak diren zehapenak ezarri ahal izango dira.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo Xedapen Gehigarria. Araudiari buruzko aipamenak.

Irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriari buruzko 2004ko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauari buruzko aipamenak foru arau honetan ezarritakoari dagozkiola ulertuko da.

Bigarren Xedapen Gehigarria. Aldi baterako lehentasunezko beste jarduera batzuk.

1. Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren bidez, jarduera batzuk aldi baterako lehentasunezkoztat jo ahal izango dira, foru-arau honen 31. artikuluan ezarritako eremuen barruan.
2. Foru-arau honen 42. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, honako jarduera hauek lehentasunezkoztat joko dira 2019ko eta 2020ko ekitaldietan:
 - a) Kultura-zabalkundearen arloan:
 - a') The Walk On Proyect (WOP) fundazioaren kultur jarduerak.
 - b') Basque Know How Fundazioa.
 - c') Bilbao Talento-Gaitasun Fundazioaren jarduera-programa.
 - b) Kirolaren arloan:
 - a') Sokatiraren Munduko Txapelketa, Getxo.

Hirugarren Xedapen Gehigarria. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren aldaketa.

Honako aldaketa hauek egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauan:

Bat. Aldatu egin dira 86. artikuluko 3. eta 4. zenbakiak, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta honela geratzen dira idatzita:

«3. Baterako tributazioa aukeratzen bada eta kenkari horretarako eskubidea dutenak pertsona bat baino gehiago badira, batzuk 30 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, aurreko 1. zenbakiaren hirugarren lerroaldean ezarritako portzentajea eta muga aplikatuko dira.»

«4. Epai erabagiz, familiako etxebizitzaren alokairua zergadunak bakarrik —eta ez beste inork— ordaindu behar badu, zergadun horrek eskubidea izango du artikuluko honetan zehaztutako kenkaria egiteko autoliquidazioan. Alokairua zergadun biek ordaindu behar badute, kenkaria bien artean hainbanatuko da eta bakoitzaren autoliquidazioan bakoitzari doakion proportzioan egingo da, artikuluko honen 1. zenbakian ezarritako portzentajearen eta mugen barnean, salbu eta 1. zenbaki horretako bigarren eta hirugarren paragrafoetan jarritako baldintzak betetzen direnean; kasu horretan, paragrafo horietan zehaztutako portzentajeak eta mugak aplikatzeko eskubidea izango dute.»

Bi. Aldatu egin da 87. artikuluko 3. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Zergadun bakoitzeko aurreko 1. zenbakian diren kontzeptuengatik zergaldi jarraituetan zehar egindako kenkarien batura ez da 36.000 euro baino gehiago izango. Zifra horri gutxitu egingo zaio, hala badagokio, foru arau honetako 49. artikuluan jasotakoaren arabera berrinbertsioagatik salbuetsita dagoen ondare-irabaziaren zenbatekoari %18 aplikatuz ateratako emaitza edo 42.b) nahiz 42.c) artikuluetan xedatutakoa aplikatuz ateratakoa.»

Hiru. Aldatu egin da 91. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«91. artikulua. Kenkariak mezenasgo-jarduerengatik.

1. Zergadunek Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauan zerga honetarako aurreikusitako kenkariak aplikatu ahal izango dituzte.

2. Artikulu honetan aipatzen den kenkariaren oinarriak ezin izango du gainditu zerga honen zerga-oinarriaren 100eko 35; foru-arau honen 65. eta 66. artikuluetan ezarritako zerga-oinarri eta aurrezkiaren oinarri orokorren batura izango da zerga-oinarria.

Muga hori gainditzeagatik kendu ez diren zenbatekoak ondoz ondoko hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izango dira, muga bera errespetatuz.

3. Artikulu honetan xedatutakoa aukera bat da, autolikidazioa aurkeztean erabili behar dena, foru-arau honen 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Aukera hori ezin da aldatu borondatezko aitorten-epea amaituta badago.»

Lau. 92. artikulua oraingo edukia 1. zenbakia izango da aurrerantzean, eta 2. zenbaki berri bat gehitzen da; honela geratuko da idatzita:

«2. Zergadunaren errenten artean zerbitzuak atzerrian modu iraunkorrean ematetik eratorritako lan-etekinak badaude, orduan zergadunak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko kenkari bat aplikatzea hauta dezake: aipaturiko lan-etekinei dagokien kuota osoaren %50. Kenkari hori, dena dela, artikulu honetako aurreko zenbakian araututakoaren ordezkia izango da, harekin bateraezina baita.

Atal honetan xedaturikoa aplikatzeko, nahitaezkoa izango da zergadunak zergaldiko ehun eta laurogeita hiru egun baino gehiago igarotzea atzerrian aurreko paragrafoan aipatzen diren etekinak eragiten dituen lan-kontratuari dagozkion zereginak egiten, eta, dena dela, zeregin horiek atzerrian soilik egin behar ditu.

Zenbaki honetan ezarritakoa ez da aplikatuko, batetik, foru arau honetako 9. artikulua 17 zenbakian aurrez ikusitako salbuespena aplikatzen denean, eta, bestetik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiak tributaziotik kanpo uzten dituen soberakinen araubidea aplikatzen denean.

Artikulu honetan xedatutakoa aukera bat da, autolikidazioa aurkeztean erabili behar dena, foru-arau honen 105. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Aukera hori ezin da aldatu borondatezko aitorten-epea amaituta badago.»

Bost. i), j) eta k) letrak gehitzen zaizkio 105. artikuluari, eta honela geratzen dira idatzita:

«i) Lekualdutako langileentzat jasotako araubide berezia aplikatzeko aukera, foru- arau honen 56.bis artikuluan arautua.

j) Mezenasgo-jardueren ziozko kenkariak aplikatzeko aukera, foru-arau honen 91. artikuluan arautua.

k) Nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria, foru-arau honen 92.2 artikuluan arautua.»

Laugarren Xedapen Gehigarria. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren aldaketa.

Honako aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan:

Bat. 33. artikuluko 3. zenbakia berridatzi da, eta honela geratzen da:

«3. Nolanahi ere, honako kasu hauetan ez da aplikatuko artikulu honen aurreko zenbakietan xedatutakoa:

a) Dibidenduen edo mozkinetako partaidetzak, zeinen banaketak kengarri den gastu bat sortzen duen entitate ordaintzailean.

b) Sozietateen gaineko Zergan edo zerga horren izaera berdina edo antzekoa duen beste zerga batean %10etik beherako karga-tasa izan duten entitateek banatutakoak.

c) Foru arau honetako 14. artikuluan aipatutako ondare-sozietateek banatutako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak, entitate banatzaileak izaera hori eduki duen ekitaldietan sortutako mozkinen kargura banatuak badira.

d) Foru arau honetako 14. artikuluan aipatzen diren ondare-sozietateek jasotako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak.»

Bi. 60. artikuluko 5. zenbakia berridatzi da, eta honela geratzen da idatzita:

«5. Zergadunaren errenten artean egoitza Espainiako lurraldetik kanpo duen entitate baten dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak badaude, eta entitate horren egoitza dagoen herrialdeak ez

badu nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenik Espainiako Erresumarekin (hitzarmen hori, gainera, aplikagarria izan beharko litzateke eta informazioa trukatzeko klausula jaso beharko luke); bada, orduan, zergadunak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko kenkari bat aplikatzea hauta dezake: dibidendu edo mozkinetako partaidetza horiei dagokien zerga-oinarriaren %14. Kenkari hori, dena dela, artikulua honetako aurreko zenbakietan araututakoaren ordezkia izango da, harekin bateraezina baita.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatzeko, dibidenduei edo mozkinetako partaidetzei dagokien zerga-oinarria honela kalkulatu behar da: dibidendu edo mozkinetako partaidetzen zenbateko osoa hartu behar da, eta zenbateko horri gutxitu egin behar zaizkio partaidetzaren inguruko gastuak.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez da aplikatuko kasu hauetan: batetik, dibidenduei edo mozkinetako partaidetzei foru arau honetako 33. artikuluan ezarritakoa aplikatu ahal bazaie; bestetik, foru arau honetako 33.1.c) artikuluko azken lerroaldean xedatutakoari dagokionez konputatzen ez den jarduera batean sortutako dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak badira, eta, azkenik, foru arau honetako 48.2.c) artikuluan aipatzen diren jardueretako batek sortutako dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak badira.»

Bosgarren Xedapen Gehigarria. Lan-jardueran integratzea sustatzea.

1. Sozietateen gaineko Zergaren, establezimendu iraunkorraren bitartez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren edo jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek hezkuntza sistemako maila eta espezialitate guztietan irakaskuntza arautuak emateko ofizialki onartutako ikastetxeen alde egindako irabazizko ekarpenak edo ekarpenak, betiere praktika programetan edo laneko programetan egiten diren lanbidearen arloko hobekuntzako gastuak ordaintzera bideratuta baldin badaude ekarpen horiek eta indarreko legerian eskaturikoaren aldean hobekuntza badakarte. Erregela-menduetan ezarritako moduan, mezenasgorako lehenta-sunezko jardueretarako ezarritako zerga-trataera bera izango dute, betiere aipaturiko foru arau horren 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.
2. Zerga-tratamendu bera jasoko dute ikastetxe, enpresa edo enpresa proiektuak garatzeko programa horietan horiek gauzatzeko hasierako etapan edo garapen fasean dauden ikasleek edo hazteko ahalmen handia duten mikroenpresak, enpresa txikiak edo ertainak eratzea dakarten ikasleek egiten dituzten ekarpen edo kontribuzioek, baldin eta ekarpen edo kontribuzio horiek indarreko legeriak eskatzen duena hobetzea badakarte, erregelamenduz ezartzen den moduan.
3. Xedapen gehigarri honetan xedatutakoa ez da aplikatuko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikuluan ezarritako baldintzetan, ekarpena edo kontribuzioa egiten duen zergadunaren eta horren aldeko erakundearen arteko lotura- harremana dagoen kasuetan.

Seigarren Xedapen Gehigarria. Izatezko bikoteak.

Foru-arau honen ondorioetarako, izatezko bikoteak aipatzen direnean ulertuko da Izatezko Bikoteak Arautzeko Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako bikoteak direla.

Berebat, ulertuko da aipamen horiek honelako izatezko bikoteak ere hartzen dituztela aintzat: beste autonomia-erkidego batzuetako, Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako, Europako Esparru Ekonomikoko edo beste herrialde batzuetako erregistro publikoetan modu berean eratu eta inskribatutakoak.

Era berean, ezkontza bidezko ahaidetasun-harremanei egindako aipamenetan, izatezko bikotea eratzearen ondoriozko harremanak ere sartuko dira.

Zazpigarren Xedapen Gehigarria. Mezenasgoaren lehentasunezko jarduerak.

Foru-arau honetan eta, bereziki, 42. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Bilbo Metropolitarrak Birbizteko Elkartea (Bilbao Metropoli-30) egindako jarduerak Bizkaiko Lurralde Historikorako lehentasunezko jardueratzat hartuko dira, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo Xedapen Iragankorra. Araubide iragankorra.

Foru-arau hau indarrean jartzen denean otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauak (foru- arau hori irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzkoa da) II. tituluaren ezartzen duen zerga-araubide berezia aplikatzen ari diren erakundeek dokumentazio hau aurkeztu beharko diote tributu-administrazioari: eratze-eskritura edo -akta, erakundearen estatutuak, haren helburuen azalpen-memoria bat, dagokion erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzeko agiria, eta 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituelako erantzukizunpeko adierazpen bat, erakundearen legezko ordezkari guztiek sinatua. Erregelamenduz ezarriko da dokumentazioa aurkezteko modua, eta foru-arau hau aplikatu behar den lehen zergaldia amaitu aurretik egingo da aurkezpena.

Xedapen honetan ezarritako betebeharra ez betetzean ondorioz, foru-arau honen II. tituluaren xedatutako araubidea ezin izango da aplikatu haren aplikazioaren lehenengo zergalditik, eta ezin izango da eskatu aplikatzeko hurrengo lau urteetan.

Bigarren Xedapen Iragankorra. Elkarrekotasuna etorkizuneko dohaintzarako jada formalizatuta konpromisoen kasuan.

Etorkizuneko dohaintzak direla eta, foru arau honek ondorioak sortu aurretik formalizatu diren konpromisoak izanez gero eta irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauaren 31. artikuluan xedatutakoa aplikatzen ari bazaie, artikulua horretan xedatutakoa aplikatzen jarraitu ahal izango da konpromiso horietan ezarritako amaiera-datara arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILE

Xedapen Indargabetzaile Bakarra. Arau-indargabetzea.

Foru arau hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko dira bertan xedatutakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak eta, bereziki, irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko 2004ko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Araua.

Dena den, indarrean jarraituko du abenduaren 12ko 7/2018 Foru Arauaren lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoak. Foru-arau horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudia egokitzen da abenduaren 28ko 10/2017 Legeak Ekonomia Itunean eginiko aldaketetara.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengo Azken Xedapena. Arauak emateko gaikuntza Baimena ematen zaie.

Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantza Sailaren titularrari foru arau hau garatzeko beharrezko xedapenak eman ditza.

Bigarren Azken Xedapena. Indarrean jartzea.

Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak, salbu eta hirugarren xedapen gehigarriko Bat zenbakian ezarritakoa izan ezik. Kasu horretan, ondorioak xedapenean bertan adierazitako ondorioak izango ditu.

Bilbon, 2019ko martxoaren 20an.

Batzar Nagusietako Lehendakariak,

ANA OTADUI BITERI

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,

KOLDO MEDIAVILLA AMARIKA